

Larramendiren apologiaren XVIII. mendeko bizitza, edo zergatik ez den bibliografia lana ahaztu behar¹

The 18th-century life of Larramendi's apology, or why the bibliography work should not be forgotten

Blanca Urgell Lázaro*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In this paper we have analyzed the two editions that were made of the book known as Larramendi's «apology» (*De la antigüedad...*) during the author's lifetime, and the difficulties that surrounded it, because they could affect the interpretation of the book. The comparison of both editions has provided us with a fascinating insight into the problems that arose from the publication of the first edition (1728), the «Notice to the reader» that only appears in some copies of the first edition, the whereabouts of the «notice» in the second edition (s.d.), the changes made to the list of Basque etymologies of Spanish words and so on.

Throughout our research, the need to date the second edition grew. By piecing together internal and external arguments, we have proposed a range that seems to us to be certain, of between 1730-1736, and another more precise and quite plausible one of between 1730-1732 instead of the approximate date of 1740 that has hitherto been suggested. Along the way, we have also obtained some data that may be useful to the chronology of the composition of Larramendi's dictionary.

By way of general conclusion, we have once again proved that bibliographical work is a fundamental and indispensable task in philology.

KEYWORDS: Larramendi; bibliography; edition changes; dating; chronology; Juan de Idiaquez.

¹ Lan hau «*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-2) ikertaldearen laguntzari esker egina da. Joseba A. Larkarra beti belarriprest agertu da lana garatu bitartean eta haren ahozko zein idatzizko oharrek hobetzen lagundu didate. Rafael Guerrero Elecalde historialariaren arreta eskuzabalari esker doi bat barneratu naiz Larramendi babestu zuen babes-sare gipuzkoar indartsuaren munduan.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Blanca Urgell Lázaro. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen Ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – blanca.urgell@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-4231-2825>

Nola aipatu / How to cite: Urgell Lázaro, Blanca (2025). «Larramendiren apologiaren XVIII. mendeko bizitza, edo zergatik ez den bibliografia lana ahaztu behar», *ASJU*, 59 (1), 53-87. (<https://doi.org/10.1387/asju.27275>).

Jasoa/Received: 2025-02-08; Onartua/Accepted: 2025-04-19. Online argitaratua / Published online: 2025-04-29.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA: *Lan honetan Larramendiren «apologia» izenaz ezagun den liburua (De la antigüedad...) egilearen bizian izan zituen bi edizioak eta jasan zituen gorabeherak aztertutakoak, beraren interpretazioa baldintza lezaketelakoan. Bien erkaketak berri jakingarriak eman ditu 1728ko lehen edizioak izandako harrera istilutsuaz, lehen edizioaren ale batzuetan bakarrik agertzen den «Aviso al lector» berriaz, atal horren edukiak 2. edizioan (d. g.) izan zuen patuaz eta gaztelaniazko hitzen euskal etimologia zerrendan gertatutako aldaketaz, besteak beste.*

Azterketaren ildoak 2. edizioaren data bilatzera eraman gaitu. Barneko eta kanpoko argudioak konbinatuz, aipatu ohi den 1740ko gutxi gorabeherako dataren ordez 1730-1736ko epea eman dugu ziurtzat, eta 1730-1732ko zehatzagoa aski egiantzekotzat. Bidean, Larramendiren biztegiaren idazketaren kronologiarako argigarriak bide diren datuak ere erdietsi ditugu.

Ondorio orokor gisa, berriro egiaztatu dugu lan bibliografikoa filologoaren oinarritzko eta ezin utzizko zeregina dela.

HITZ-GAKOAK: Larramendi; bibliografia; edizioz edizio aldaketak; datazioa; kronologia; Joan Idiakez.

1. Aurkezpena

Gure belaunaldiak, 80ko hamarkadan ikertzen eta argitaratzen hasi ginenonak, Ediciones Vascas argitaletxearen 1978ko edizioarekin ezagutu du Larramendiren *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España* liburua (hemendik aurrera *De la antigüedad*), «Larramendiren apologia» izenaz agian ezagunagoa. Ez da izan litekeen ediziorik onena,² baina berak hurbildu gaitu Larramendiren testura. Horrekin jokatu dugu, beraz, eta besteak ere horrekin jokatu dutela uste dugu, urte hauetan Larramendiri buruz egin ditugun lanetan.

Alabaina, zeharka, berriki jakin dugu badirela bi edizio, ez bat, Larramendiren bizitzan eginak: bata beti aipatzen dena, Salamancan Garcia de Honoratoren etxean 1728an egin, gramatika argitaratu aurreko urtean; eta beste bat, data gabea, Salamancan berean Villargordoren etxetik jalgia, hain juxtu gramatikaren argitaratzailearenetik. Data ematen dutenek *ca.* 1740 aipatzen dute.³

Kezka sortu digu berri horrek. Ediciones Vascasena bietan zeinetatik egin den ez dago jakiterik, zuzenean bederen, edizio horrek ez baitakar inolako erreferentziarik, ez gai horretaz, ez bestez, egilearen eta liburuaren izenaz besterik. Kezka ez da nolabait, zeren eta 80ko hamarkadatik aurrerako lanetan aldeztu baitugu —barruko

² Liburuki berean bi obra bildu zituen Ediciones Vascasek, ez faksimilean, baizik eta hala-hola transkribaturik (esate baterako, *s* altuaren ordez [ʃ] *f* letra erabili zutenez, irakurketa arras desatsegina da): Perotxegiren *Origen de la Nación Bascongada* eta Larramendiren *De la antigüedad*. Azalean Perotxegiren azalaren argazkia, zuri-beltzean; atzeko azalean Larramendirena, gorri-beltzean. Perotxegirenak «Segunda impresión» dio; aldez, Larramendirenean argitalpen datuak (argitaletxea, urtea) ezabatu ziren eta argitaletxe berriaren izena jarri. Barneko azalean Perotxegiren azalaren argazkia errepikaturik dago eta berak hartzen ditu lehenengo orrialdeak (5-58); hori amaitu eta hurrengo orrialdean Gipuzkoaren armariaren bertsio zahar bat ageri da —*De la antigüedad*ekoa dela asmatu egin behar— eta, ez azal, ez izenburu, hurrengo orrian Larramendiren liburua hasten da: eskaintza (i-iv) eta gorputza (1-140).

³ Espainiako Liburutegi Nazionalaren katalogoak 3/35459 alean hauxe dio: «[c. 1740]» eta, bestalde, «Fecha aproximada obtenida de Palau [132.043]». Bizkaiko Foru Liburutegiak bi ale ditu (LAND-R-70 eta VR-11) eta biez orokorrean hauxe dio: «Según Aguilar Piñal, V, 359 fecha probable de impresión en torno a 1740». Aurrerago eztabaidatuko dugu data hori (ik. § 4).

ebidentzietan oinarriturik— Larramendik euskara gramatizazioaren bidean⁴ behin betiko sartzeko idatzi zituen eta beraren hizkuntza-plangintzaren oinarrian dauden hiru lanetan apologia lehenbizikoa dela; alegia, apologiak, gramatikak eta hiztegiak osotasun bat osatzen dutela beste hizkuntza batzuetan garai hartako Europako hainbat eragiletan bezalaxe (Lakarra 1985). Horrezaz gainera, horrela irakurtzen duenak⁵ aise egiazta dezake apologia ez dela gramatikaren atarikoak bakarrik, Larramendik hitzez hitz dioenez,⁶ baizik eta ordurako hiztegia ere egiteko asmoa gogoan izan eta hitzez nola hornituko zuen aurreraturik eta zehatz-mehatz definiturik dagoela *De la antigüedad* (1728: 117-125), euskarak eguneratzeko behar zuen lexikoa zerekin, zein osagairekin osatuko zuen (Urgell 2002a: 634).⁷

Horren ondorioz, Larramendiren euskalgintzako lanaren kronologia proposatu genuen (Urgell 2002a: 630-635), lehenengo gramatikaren bitartez eta gero hiztegiaren bitartez gauzatu zen egitasmo osoa Larramendik 1728rako buruan zeukakeelakoan. Alabaina, *De la antigüedad* bigarren edizioa 1740koa balitz, demagun, premiazkoa litzateke jakitea aurrerapen hura —Larramendiren egitasmo osoa nolakoa izango zen eta batez ere hiztegia hitzez nola beteko zuen— 1728ko ideiak diren ala ez. Ustezko 1740ko horretakoak balira, ordea, *De la antigüedad*eko hitzen esanahia guztiz aldatuko litzateke, ez baikinakeke Larramendiren egitasmoaren hasieran egongo, amaiara aldean baizik: zehazki, *Hirukoitza* burutzeko bi urte inguru faltan, 1742an bukatu baitzuen.⁸

⁴ Gramatizazioa (Aurox 1994) Errenazimendutik aurrera latinaren tradizioaren gainean eta haren kontzeptuak erabiliz Europako hizkuntzak —lehenik, eta gero beste kontinenteetakoak— deskribatzeko, ikasteko eta normaltzeko teknologiak (gramatikak, hiztegiak...) sortu zituen mugimendua da.

⁵ Ibarren *Genio y lengua* liburuak (1936) bultzatu zuen lehenagoko interpretazioaz, halaber, ikus Lakarra (1985: 11-12, eta 37. oh., besteak beste). Zientzia modernoaren izenean lehenagotik datorren gutxiesteaz, ikus Urgell (2016 [2021]: 122-123).

⁶ «Estoi para dar à luz un Arte de la Lengua Bascongada; y por que preveo crisis, y resultados, quiero prevenir las con este Escrito. Así será menor el volumen del Arte, y le vindicaré de objeciones, y calumnias con mas despejo, y liberalidad» (Larramendi 1728: 1). Besterik esaten ez den bitartean, *De la antigüedad*eko aipuak Ediciones Vascas 1978ko edizioaren arabera emanak dira, eta bertako orrialdezenbakiak erabiliz.

⁷ Zehazki lexiko aberastasunari buruzko, euskararen historiari buruzko eta euskal hitzen izaera eta egoerari buruzko teoria trinkoak garatu zituen *De la antigüedad*en, batez ere «El Bascuence es Lengua mas rica y copiosa que otras muchas» atalean (1728: 117-125), hiztegiaren hitzaurrean hitzez hitz errepikatu zituen ataletako batean, hain zuzen (1745: ix-xii). Lexiko aberastasunari buruzko Larramendiren teoriaren berritasuna eta garrantzia aurrenik Lakarrak (1993: 403-405) ipini zituen agerian. Gai horretaz gehixeago sakontzeko ik. Urgell (2000a: 420, 563. oh.).

⁸ Hiztegia noiz amaitu zuen jakitea ez zen zaila, zeren eta 1742an hitzaurrea idazten baitzebilan eta, are argiago, eliz oniritzietan lehenengoa, Bartholome de Galarzarena (*HH*, ¶ [5]-¶¶), nahitaez lana begien aurrean egina, 1743ko abenduaren 28an datatua baita (Urgell 2002a: 633). Cf. «la fecha de la aprobación más antigua de una obra señala el momento en que el autor la había concluido (en realidad, tenía que haberla acabado semanas, si no meses antes). Y esa fecha podía ser a veces más de un año anterior al de su publicación» (Iglesias Feijoo 2017-2018: 40). Horrez gain, Lakarrak (2023: 178-179) lan aipagarri bat egin du erakutsirik 1740ko abuztuaren 14an Asuntzioko Sermoia egin zuenean *triumfo* sarrera eta bere familia eginak bide zituela eta ziurrenik «azken tomoaren erdia edo gehiago egina edo horren oinarriak jarriak zituela behintzat». Egiaztapena behar, eta Larramendik Gipuzkoako Probintziari idatzi zizkion bi gutunek 1742ko data zehatza eman digute: «Tengo en fin la obra de mi Diccionario Bascongado en estado que antes del año pueda darse a la prensa» (1741-04-30) eta «El Diccionario [...] está ya dispuesto desde este año pasado» (1743-04-30; biak *ap.* Berrueto 1966: 20).

Hala bada, lan hau galdera horri erantzutera dator. Horretarako, lehen-lehenik bi edizioak beren artean erkatu ditugu, zertan diren berdinak eta zertan ezberdinak jakitearren, deus ezberdinik balego. Haatik, honelako filologia-erronketan gertatu ohi den bezala, arakutzen hasi eta kontu gehiago agertu dira, batzuk azaldu ahalko ditugunak eta beste batzuk soilik bidenabar nabarmendu edo iradokirik geldituko direnak.

Lanaren egiturak azterketak jarraitu dituen bideak islatuko ditu. Lehenik XVIII. mendeko bi edizioen erkaketa aurkeztuko dugu, ikusiko dugu aldaketa batzuk ez direla nolanahikoak eta, bide batez, egiaztatuko dugu Ediciones Vascasen edizio modernoa zeinetatik egin den (§ 2); gero Vinsonen deskribapenari esker ikasiko dugu lehenbiziko argitalpenak bi egoera dituela,⁹ bigarren egoeran «Advertencia al lector» atal berria erantsi baitzion Larramendik liburuari lehen aleak saldu eta gero (§ 3); horretaz jabetzeak helburu berriak harrarazi dizkigu: atal berri hori daukan aleren bat aurkitu, haren edizioa egin eta bigarren edizioko aldaketekin erlaziorik ote duen aztertzea (§ 3.2). Azkenik, bigarren edizioa noiz eta nola datatu den ikerturik, gaur datatzeko bildu ahal izan ditugun datuak aurkeztuko ditugu (§ 4). Amaieran, ondorioak eta erronkak laburbilduko ditugu (§ 5).

2. Erkaketa

Helburua gogoan, edukian jarri dugu arreta gehiena, hitzez hitzeko mailara heldu gabe, are gutxiago letraz letrakora, salbu eta halako aldaketa txikiagoren batek begia jo digunean. Egiteke gelditzen da, bada, noizbait egin beharko litzatekeen *De la antigüedad*en bi edizioen arteko azterketa xehea, nahiz halako ziurtasun batez baieztatzeko dezagun hemen aurkeztuko ditugun ondorioak funtsezkoenean ez liratekeela aldatuko.

Erkaketa nagusia egiteko Espainiako Liburutegi Nazionaleko ale bana erabili dut: U/4663 eta 3/35459 kodedunak. U/4663, 1728ko alea, azalaren goiko aldean laburduraz idatzi zen bezala, «De la Librería del Colegio de San Ignacio de Valladolid» izan zen aurrenik, hau da, jesulagunek Valladoliden zeukaten ikastetxearen liburutegikoa. Bigarren edizioarena, 3/35459, «Librería del licenciado D. Cayetano Alberto de la Barrera»tik dator.¹⁰ Barreraren ale horri 136-137. orrialdeak falta zaizkio, 1728ko edizioan 122-9tik hasi eta 124-10 arteko zatia, alegia.¹¹ Bi orrialdeok ezker-eskuin kokaturik daudenez (eta ez orri bat eta beraren aurkian eta ifrentzuan), badirudi argazkiak egiterakoan itzuri zirela, alegia, ez zaizkiola jatorrizko aleari falta,

⁹ Egoera mota bat baino gehiago daude; guri zuzen-zuzenean haxe dagokigu: «Las modificaciones realizadas una vez vendidos algunos ejemplares (sin incluir una nueva portada), por ejemplo, la inclusión o la supresión de los preliminares o páginas de texto, o la inclusión de hojas con fe de erratas, anuncios, etc.» (Gaskell 1972 [1998]: 395).

¹⁰ Cayetano Alberto de la Barrera madrildarrak (1815-1872) botikari hasi eta liburuzain amaitu zuen bere lan-bizitza, liburu zahar eta eskuizkribuen zaletasunak eramanda, nonbait. Zendutakoan, familia egoera ekonomiko ez-onean utzi zuenez gero, Liburutegi Nazionalak 2.500 bat liburu erosi omen zizkion eta hortik bide dator hautatu dugun alea. Haren ezagutza Alarcó Ubach (d.g.) lanari zor diot.

¹¹ Lehenengo edizioaren ale guztiek —ikusitako guztiek behintzat— jauzi bat dute zenbakuntzan 96. orrialdetik 99.era, BNEren katalogoak eta bestek jaso dutenez. Akatsa orrialdekatzean dago, baina testuan ez dago inolako jauzirik.

faksimileari baizik. Nolanahi ere, erkaketarako beste ale bat erabili dugu bi orrialde horietan: Bizkaiko Foru Liburutegiko VR-11 kodeduna.¹²

Edizioak identifikatzeko argitaletxeen lehen letrak erabiliko ditugu, hots, H (= Honorato, 1728) eta V (Villargordo, data gabea); bigarren edizioan Bizkaiko alea bere kodearekin [VR-11] identifikatuko dugu behar denean.

Erkaketaren emaitzak bost ataletan banatu ditugu: azala (§ 2.1), eskaintza (§ 2.2), sarrera (§ 2.3), etimologiak (§ 2.4) eta gainerako aldaketak (§ 2.5).

2.1. Azala

Azalean edukizko aldaketa bakarra dago, argitaletxearen datuei dagokiena:

[H] Por Eugenio Garcia de Honorato. / Año de 1728.

[V] Por Antonio Joseph Villargordo. [s.d.]

2.2. Eskaintza

Juan de Idiaquezi (hemendik aurrera Idiakez) idatzi zion eskaintzaren hasieran dago lehenengo aldaketa esanguratsua, artean haren karguak aldatu eta aski emen-datu baitira, nonbait:

[H] CONDE DE SALAZAR, TENIENTE / General de los Exercitos de su Mag. / Sargento Mayor de las Quatro Com- / pañas de sus Reales Guardias de / Corps, y Gobernador del Señor / Principe de Asturias.

[V] CABALLERO DEL ORDEN / de Santiago, / Duque de Granada / de Ega, Conde de Salazar, Sumiller / de Corps del Principe N. Señor, / Gobernador, y Capitan General / de los Exercitos de España, Sargento / Mayor de las Reales Guardias de / Corps de su Mag. y Comendador / de Yeste, y Teivilla en la / Orden, y Caballeria / de Santiago.

Hemendik eratortzen da Ediciones Vascasen edizio modernoaren iturria Villargordoren edizioa izan zela, Idiakezen tituluak horretakoak direlako, ez 1728koak.

Gainerakoan, eskaintza honetatik ondoriozta daitekeenaren arabera, bigarren edizioak lerroz lerro jarraitzen dio lehenbizikoari, tarteka-marteka salbuespenak egon arren. Ez dituzte, beraz, plantxa berak erabili, apaingarriak nahiko antzekoak izan arren, bai azalaren inguruko karratu modukoa, baita eskaintzako kapitalaren apaingarria ere.

Eskaintzaren azken orrialdean lerro bat gehiago du Villargordorenak (V) 1728koak baino (H). Adostasunik eza eskaintzaren hasieratik dator, **Idiakezen** titulu ugariagoak jaso beharrak sortua (H-k sei lerro vs V-k hamaika; ikus 1. irudia behean). Alabaina, hasieratik bertatik hasi ziren Villargordorenako langileak lerroak berdintzen: «DE YDIAQUEZ»en aurreko eta atzeko lerro hutsak ezabatu dira (3. lerroa), eta «EXCMO. SEÑOR»en atzekoa ere bai (15. lerroa); bestalde, kapitalak xehe-xehe behar duena baino lerro bat gehiago du 1728koak eskuinetara koskatu-rik; V-n, ber-rriz, kapitalaren azpiko lerro erdi hori ere letraz bete da. Eragiketa hauen ondorioz jadanik hasierako orrialde honetan bertan ikusten den lerro bakar bateko aipatutako aldea baino ez zen gelditu eskaintzan.


¹² Gure bilaketan bildu ditugun aleak eta haien deskribapenak 3. eranskinean azaldu ditugu.

AL EXCmo. SEÑOR
DON JUAN

DE YDIAQUEZ,

CONDE DE SALAZAR, TENIENTE
General de los Ejercitos de su Mag.
Sargento Mayor de las quatro Com-
pañias de las Reales Guardias de
Corps, y Governador del Señor
Principe de Asturias.

EXCmo. SEÑOR:

 O sé, que V. Exc. re-
cibirá un gran gusto
en leer este Trata-
dito, por la materia,
que contiene; que
son muchas de las
prerogativas, y per-
fecciones del Baf-
cuenze: y esso me basta à mi, para de-
dicarle à V. Exc., aun prescindiendo
de

© Biblioteca Nacional de España

AL EXCmo. SEÑOR
DON JUAN

DE YDIAQUEZ,

CABALLERO DEL ORDEN
de Santiago, Duque de Granada
de Ega, Conde de Salazar, Sumiller
de Corps del Principe N. Señor,
Gobernador, y Capitan General
de los Ejercitos de España, Sargento
Mayor de las Reales Guardias de
Corps de su Mag. y Comendador
de Yeste, y Tevilla en la
Orden, y Caballeria
de Santiago.

EXCmo. SEÑOR.

 O sé, que V. Exc. re-
cibirá un gran gusto
en leer este Trata-
dito, por la materia,
que contiene; que
son muchas de las
prerogativas, y per-
fecciones del Baf-
cuenze: y esso me basta à mi, para de-
di-

© Biblioteca Nacional de España

1. irudia

Eskaintzaren lehen orrialdea bi edizioetan. *Iturria*: BNE

2.3. Sarrera

Hasteko eta behin, «Introducción» izenburua darama V-n 1728ko edizioan izenbururik gabe argitaratu zen atal honek (1. or.).

2-4. orrialdeetan, Villargordoren edizioan Larramendik testu luze bat erantsi du, 1728koan ez zegoena, «[intre]pidez genial de mi Pais» paragrafo bukaeraren eta *Arte de la Lengua Bascongada* paragrafo hasieraren artean. Guztira 70 lerroko eransketa (19 lerro 2. orrialdean, 3. orrialde osoa [29 lerro] eta 22 lerro 4. orrialdean). Eransketa osoa 1. eranskinean editatu dugu. Laburbildurik, honako gai hauek jorratu zituen Larramendik eranskin horretan:

- Liburuan erabiliriko estiloa apologiari dagokiona da, baina baita —eta bereziki— bere hizkuntzaz maiteminduta dagoen euskaldunari ere, zeinak eten-gabe entzuten dituen txantxa eta burlei ahal bezala erantzun behar dien: estilo ausart, haserre eta zakarra.
- Euskaldunaren estilo horrek ez du inor mintzen ahozkoan, dibertitu eta atsegin eman baizik: idatzizkoan ere berdin gertatzea espero du.
- Ildo horretan, Espainiako Akademia errespetuz begiratzen du, eta haren hiztegia estimatzen.

- Halere, haserre dago Akademiaren hiztegiaren kontra, ez duelako euskara me-rezi duen lekuan jarri.
- Halaber, gainerako hizkuntzez dioenak ez dauka zerikusirik hizkuntza horiek erabiltzen dituzten nazioekin eta nazio horien ohorearekin eta, nolana ere, dioen guztia dakitenek esana da, ez berea.

Gainerakoan lerroz lerro kopiatua da 1728ko sarrera V-n, salbuespenak salbuespen. Salbuespen jakingarrienak beherago bilduta daude (§ 2.5).

2.4. Etimologiak

*De la antigüedad*ek gaztelaniazko hitzen euskal etimologiez osatutako atal luze bat dauka, Ediciones Vascasen argitalpenean A, B eta C letrak hartzen dituen (v. «De las Etymologias de las voces Castellanas», 36-80. or.). Oinarri horretatik abiatuta, bi baieztapen egin ditugu aurreko ikerketetan: batetik, Larramendik berariaz Oihenarten *Notitiako* saioa berdindu nahi zuela, horrek ere A, B eta C letrak baino ez baitzitu-
tuen eman (Urgell 2002a: 634);¹³ bestetik, asmo hori betetzeko C letra ezagutzeko modua eman ziokeen «satorren baten» laguntza behar zukeela Espainiako Akade-mian, apologia 1728koa izanik, *Diccionario de Autoridades*en 2. liburukia, osoki C letrari eskainia, ez baitzen 1729 arte argitaratu, hots, *De la antigüedad* atera eta hu-rrengo urtean (Urgell 2009).

*De la antigüedad*en bi edizioen arteko konparaketatik ondorio jakingarriak era-tortzen dira baieztapen horiei dagokienez. Alde batetik, Villargordorenean (eta, be-raz, Ediciones Vascasenean) ez bezala, 1728ko Honoratoren edizioan A eta B letre-tako etimologiak bakarrik aztertu zituen Larramendik, hots, ordura arte argitaraturik zegoen Akademiaren hiztegiaren liburuki bakarrekoak, lehenengokoak (1726). Datu horrek «sator» akademikoaren hipotesi polita deuseztu du, alde batetik; eta, bestetik, erakusten digu Larramendik ez zuela bigarren edizioraino erdietsi Oihenart berdin-tzea, *Autoridades*en argitaratze erritmoak baldintzatua.¹⁴

2.4.1. A letrako etimologiak

*De la antigüedad*eko A letrako etimologietan (H 53-67, V 55-70) eransketak eta aldaketak daude edizio batetik bestera, eta ez dira gutxi.

Hona bildu ditugunak:

- H 58-59 > V 61. *Alancear* eta *albardan*-en artean *alba* sarrera erantsi zuen Larramendik: «*Alba*. No del Latin *Albus*, sino del Bascuenze *alboa*, que en un dialecto significa cercania; y el *alba* lo es del dia, y del Sol. De aqui *al-*

¹³ Larramendik alde horretatik Oihenartekiko duen zorraz ikus Ramos (1994) eta Urgell (2000a: § II, 6). Bestalde, Larramendik berak aitortu zuen erlazioa *HH*aren hitzaurrean: «Fuera de que ya Oihe-narto avia hecho una inducción bien convincente en las tres primeras Letras del Alfabeto, de que la Len-gua Castellana tenía muchas voces de la Bascongada» (Larramendi 1745: cxxx).

¹⁴ Hiztegian ez bezala (ikus aurreko oharra), *De la antigüedad*en ez du «Oihenarto» behin ere aipa-zen. Hurrengo atalean (§ 2.4.1) aztertuko dugu bertako etimologiek zerikusirik duten ala ez zuberota-rrenekin.

- borada*, &c.».¹⁵ Etimologia berri hau erabat dago lotuta *Hiztegi Hirukoitze*-koarekin (hemendik aurrera *HH*), ez bakarrik azalpenaren nolakoan, baita *alborada*-rekin lotzean ere: «Alba, cercania de el dia, y de el Sol, viene de el Bascuenze *alboa*, que en un dialecto significa vezindad, y cercania, como el alba lo es de el dia: y se conoce mejor en la palabra *alborada*, que tiene la misma raiz. Vease».
- H 59 > V 61. *Alcandora* eta *alda* artean *Alcarria* sarrera erantsi zuen: «*Alcarria*, comarca poblada de Lugares pequeños. Viene de *alcarrie* pareados, y juntos». Ostera, sarrera hau ez dago ez *HHan*, ezta *Autoridadesen* ere, baina bai Oihenarten *Notitiako* etimologia-zerrendan.¹⁶
 - H 60 > V 62. *Algarabia* eta *ama* artean *alzar* erantsi zuen: «*Alzar*. Viene de *alchá*, *alchatú*, *altzá*, *altzatú*, levantar». Aldeak alde, *HHko* bera da: «...viene de el Bascuenze *altza*, *alchatu*, levantar, *altzatú*, *alchatú*».
 - H 61-20 «*Andas*, [...] viene del Bascuenze Labortano *anda*, que significa un genero de literilla, ò corredor» > V 64-4 «...ò corredor : y de aqui *andar*, &c.». *HHan* ez dago Villargordoreneko eransketa: «*Andas*, es palabra Bascongada *andá*, que en el dialecto Labortano significa un genero de literilla, y corredor. *Andac*», baina *andar* hitzaren etimologian azalpen berbera aurkitzen dugu: «*Andar*, pudo venir de el Bascuenze *andá*, que en el dialecto Labortano significa un genero de literilla».
 - H 61 > V 64. *Andas* eta *ancho* artean bi etimologia erantsi zituen: *andrajoso* eta *angosto*. Hona hemen:

«*Andrajoso*, de *andra*, ò *andrejosía* muger remendada». *HHan* hitz horrek ez du etimologiarik, baina bai *andrajo*-k: «*Andrajo*, viene de el Bascuenze *anderejo*, *anderea*, entre otras significaciones tiene la de muñecas de niñas, que se hazen con trapos, y *joa* hechas pedazos, y rotas, y es lo que tiene el andrajo. *Zatarra*». Dakusgunez, *HHan* etimologia aldatu zuen eta, horrelakorik esaterik balego, hobetu ere egin zuela esan genezake.

«*Angosto*, el Latin, y Romance lo tomaron del Bascuenze *ango-estú* estrechez, ò apretura de alli». *HHan* hitz horrek ez du etimologiarik, baina bai *angostar*-ek: «*Angostar*, viene de el Bascuenze *ango-estua* apretura de alli». Etimologia bera, bada, nahiz kokapena aldatu.
 - H 62 > V 64-65. *Ansia* eta *apremiar* artean bi etimologia erantsi zituen:

«*Aorza* contra el viento: De *ortzá*, diente, por que caminar à orza, es caminar, mostrando los dientes al viento». *HHan* «*Aorza*, véase *orza*». Gero, s.v. *orza*, badago *a orza* azpisarrera, baina etimologiarik ez.

«*Aosadas*, atrevidamente. De *osoá*, *osatua*, entero, y tieso». *HHan* «*Aosadas*, véase *osar*». Gero *osar*-en ez dago *aosadas* sarrerarik, baina egia da *osadia*-ri euskal etimologia ematen diola, eta etimologia hori *De la antigüedad*en jorratutako bidetik doala: «*Osa-*

¹⁵ Larramendiren aipua diren bezalaxe letraldatu dira lan honetan, ez puntuazio, ez grafia, ez azentu, deus ere ukitu gabe.

¹⁶ «*Alcarria* H. villa vel pagus, tanquam *Alcar erria*, quod Vasconicè locum designat vbi raræ sunt domus» (Oihenart 1656 [1992]: 47). «[F]erme ou bourg, comme *alcar erria* qui en vascon désigne un 'lieu où les maisons sont rares'» (Orpustanen itzulpena, Oihenart 1638 [2014]: 39). «*Alcarria*.- *Alcar-erria*, pueblecitos distantes» Gorosterratzuren itzulpen irudimentsuan (Oihenart 1656 [1992]: 148).

dia, es de el Bascuence *osandia*, y significa entereza grande, y soberbia, de *osoa*, entero, y *andia*, *antia*, grande, soberbio» eta «Osadia, tambien puede dezirse, que es voz Bascogada, de *oso osoa* entero, entereza, y *dia*, junta, multitud, ò *dia* verbo, y entonces significa el que và con entereza».

H 62 > V 65. *Apremiar* sarrera osatu du: H 62-16/17 «del Bascuence *premia*, que es necesidad, y obligación.» > V 65-10/16 «del Bascuence *premiá*, que es necesidad, y obligación: y esta voz *premia* es del antiguo Romance, como se ve en varias obras impressas, y no impressas: y la trae el Diccionario mismo en la voz Caballero, *Caballero de premia*, el que está obligado à mantener armas, y caballo». Agerian denez, C letra hartzen duen *Autoridadesen* bigarren liburukiaren ezagutzari zor zaio eransketa, zeren eta bertako informazioa erantsi baitu. HHko etimologiak eransketa gorde du: «Apremiar, forzar, precisar: viene de el Bascuence *premiá*, que significa necesidad, precision; y esta voz *premia* es de el antiguo Romance, y se dezia Caballero de *premia* el que estaba obligado à mantener Armas, y Caballo».

Ondorioz, esan dezakegu etimologiei dagokienez Villargordoren edizioa hurbi-lago dagoela HHtik Honoratoren 1728koa baino, bai hautatutako hitzetan (*alba*, *alzar*, *andrajoso* eta *angosto* berriak partekatzen dituzte), bai azalpen etimologikoe-tan ere (*apremiar*); halaz guztiz, badaude ezberdintasunak ere: hiztegian ez zituen Vi-llargordoreneko *Alcarria*, *aorza* eta *aosadas* sarrera berriak gorde, arrazoiak arrazoi;¹⁷ *andrajoso*-ren etimologia *andrajo*-ra eramán zuen, eta etimologia bera hobetu;¹⁸ *angosto*-rena ere *angostar*-era aldatu zuen, oraingoan etimologia gorderik; eta, azkenik, *andas*-en etimologiari egin zion eransketa txikia («y de aqui *andar*, &c.») desagertu da HHko bertsioan, nahiz *andar* sarreran *andas*-en etimologia berbera jaso zuen. HHa-rekiko hurbiltasun handia dago, bada, baina baita halako urruntasun bat ere, Hono-ratoren argitalpenaren eta Villargordorenaren artean ez ezik, bigarren horren eta hiz-tegiaren artean ere nolabaiteko denbora tarte igaro dela iradokirik.

Bidenabar, *Alcarria* sarrera berriaren arabera, pentsa liteke Oihenarten *Noti-tiako* etimologiak 1728tik aitzina ezagutu zituela Larramendik. Alabaina, azterketa xeheago batek erakutsi digu 1728ko edizioko A lettran jadanik ageri direla Oihenar-ten *achaque* eta *achocar*. Beraz, *De la antigüedad*en lehen bertsioa ondu zueneko ba-zuen haren etimologia zerrendaren ezagutza, nahiz Villargordorenean berriro baliatu sarreraren bat eransteko.

¹⁷ *Alcarria* izen berezia da eta Oihenarten zerrenda erabili izanari zor zaio (horretaz, ik. atal honetan bertan beherago). *Aorza* sarreratik *orza* sarrerara eta *aosadas*-etik *osar*-era bidali izana baliteke beren eus-kal etimologia ezabatzeko zio nagusia; gero *orza*-n ez dago etimologiaren aztarrenik ere (*ortza* «diente»-rekin lotu zuen *De la antigüedad*en); aldiz, *osar* sarreran ez da etimologiarik ageri, baina bai *osadia*-n, eta *oso* «entero»rekin loturik dago, *De la antigüedad*eko *aosadas* bezala.

¹⁸ Etimologiak hobetzeko lana hartu izana Larramendi txantxetan ari zen uste zabalduaren kon-trako argudio indartsua da (beste argudio batzuetarako, ik. Urgell 1996: 284-286). Oihenarti buruzko Ramosen hitzak ere argigarriak dira oso (1994: 114): «sus etimologías de palabras castellanas no son tan descabelladas como la crítica ha querido ver, si se tiene en cuenta que los etimólogos actuales no pueden dar un origen fiable para la mayoría de ellas. Hay que pensar que no todo es fantasía en la obra de Oihenart, como no lo es en Garibay, en Poza, o en Larramendi. Por otro lado, este tipo de méto-dos son generales en su tiempo, además de que los mitos y las fantasías se crean en todas las lenguas; de ahí que, a pesar de todo, debemos reivindicar, a parte de otras labores sobre la lengua, su pequeña labor como etimólogo».

2.4.2. B letrako etimologiak

B letran (H 68-87, V 71-89) ez dago aldaketarik, ez eransketarik. Berez harrigarria da, bai lehenagoko A letran, bai geroagoko C letran antzeman ditugun aldaketa, eransketa eta kenketa ugariengatik; areago, segituan aurkeztuko dugun ikerketatxoaren arabera, argi dago hiztegiko etimologien azken bertsioa idazterakoan B letrako etimologietan ere aurkitu zuela zer aldatu.

Nahiz A letran ez ditugun bi edizioetan berdinak diren etimologiak aztertu —Oihenarten zerrendakorik ba ote zen egiaztatzeko baizik—, B letrako lehenengo hamabost etimologiak erkatu ditugu *HH*koekin, A letran sumatu ditugun hurbiltasun-urruntasunak letra honen laguntzarekin bermatu ote daitezkeen ikusteko. Hamabostetan bat bakarrik ez dago hiztegian (*baldio*); zazpi berdinak dira, edo ia berdinak (*badajo*, *badulaque*, *baga*, *bagage*, *bagassa*, *bagatela*, *ballena*); gainontzekoetan Larramendik etimologia aldatu zuen hiztegiko bertsioan (*bacia*, *bahia*, *balda*, *balsa*, *banda*), gehienetan osoki, edo aukeraren bat erantsi zuen (*bacin*, *baldar*).

Hala bada, esan dezakegu A letratik ateratako ondorioak zuzenak bide direla: alegia, Villargordoren ediziotik hiztegiko B letra ondu artean halako denbora tarte bat igaro bide zen eta, beraz, hiztegian *De la antigüedad*eko etimologia gehientsuak onartu bazituen ere, sarritan —gure laginaren arabera erdiak inguru— berrikusi eta osatu edo aldatu zituen, etimologia asebetegarriagoak eskaini nahian, nonbait. Geroago saiaturako gara datu horietatik ondorio kronologikoak ateratzen, baina aurrera dezakegu egiantz handiz Villargordoren edizioa *HH*ko B letra idatzi aurrekoa dela (§ 4.3).

Azpimarratzekoa dirudien beste ezaugarri bat *HH*ko etimologietan lapurteraren lekukotasuna birritan gehitu izana da (*bahia*, *banda*). Egiaztatu dugu euskalki horren erreferentziak 1728ko etimologietan ere usu ageri direla (*ahorrar*, *andas*, *barragan*, *berro*), baina han bai lapurterazko formak (*ahorra* edo *ahurra*, *anda*, *berreguin*, *berro*), baita haien esanahiak ere, oro har, Oihenartenak dira. *HH*ko *bahia*-ren etimologia ere zuberotarrarena da (eta *Bai onian helzea* esapidea), baina *banda*-ren etimologia ez da harena, Larramendirena baizik, dakigularik, bai eta haren alde dakarren lapurterazko *bandatu* «animar y esforzar» (*HH*, s.v.)¹⁹ eta, zeina, bidenabar esanik, ezin baitzeazkeen testuetatik erraz erdietsi (cf. *OEH*, s.v.)¹⁹ eta, hortaz, oso litekeena da ahozkotik hartua izatea. Xehetasun horrek iradokitzen du hiztegiko etimologietan (ere) Larramendik Baionan eman zuen denborak ondorenak izan zituela.²⁰

Bestalde, *Busto*-ren etimologiarekin (H 87-8 > V 90) amaitzen da 1728ko etimologia-hiztegitxoa, eta haren segidan «Déxo también aquí otras muchas» perpau-sak amaiera ematen dio kapituluari. Bada, aurreratu dugunez, Villargordoren argitalpenean *Busto*-ren etimologiaren eta azalpen horien artean honakoa erantsi zuen: «Quiero también poner las etymologías, que he encontrado Bascongadas, leyendo el segundo tomo del Diccionario, que contiene solamente la Letra C» (V 90).

¹⁹ Badago Leizarragaren agerraldi bat, bakarra dirudienez (cf. *EKC* ere), baina hura *ABCn* dago (I 5v) eta Larramendik soilik Testamentuaren itzulpena ezagutu zuen, dakigularik (Urgell 2005: 10).

²⁰ Hiztegian bildutako euskarazko lekukotasunetan Baionako egotaldiak izan zituen ondorenak ugari eta nabarmenagoak dira, ezagutu zituen lapurterazko testuei dagokienez batik bat (Urgell 2005), baina ahozkotik ekarritakoetan ere badago iturri ezezaguneko Iparraldeko hitzik, hala hiztegian (Urgell 2000a: § 12.2.9 batez ere) nola hiztegiaren eranskinean (Urgell 2002b: 133-137).

2.4.3. C letrako etimologiak

Aipatu berri dugun gehiketaren ondoren *Etymologias en la Letra C* atal berria hasten da (V 90-103). C letrako etimologiak bigarren edizioan bakarrik ageri direnez, ez dago 1728ko edizioarekiko eransketa edo aldaketarik *HH*rekin konpara genezakeenik, A letran aurkitu ditugunen antzera. Alta, badugu neurtzerik *HH*an sartu zituen etimologiekin, B letran egin bezala, baina oraingo honetan lagin osoa azterturik.

Villargordoren edizioko C letrak 68 etimologia biltzen ditu, aurreko bi letren kopurutik aski gertu: A letraren bigarren bertsio emendatuan, Villargordorenean, 79 etimologia eman zituen Larramendik, eta B letran 68. Bistan da, bada, C letran aurrekoetan bezainbesteko ahalegina egin zukeela Akademiaren hiztegia miatuz euskal etimologiadun hitzen bila.²¹

68 etimologia horietatik 50 berdin-berdinak dira *HH*an edo, xehetasunak xehetasun, arraz antzekoak (% 73), B letran aztertu dugun lagintxoan baino nahikoa gehiago: han erdiak, hemen hiru laurdenak. Adibidez, Villargordoren edizioa pres-tatu zueneko *caldá*-ren etimologian jadanik agertzen da *agoa bero deño galda* erre-fraua, aurretiaz Isastik bildua (*Rls* 2, *ap. OEH*, s.v. *galda*),²² eta ordurako ongi zekien Larramendik *cadira* Akademiak eman zizkion bi adieretan ('aulkia' eta 'katedra') lapurterazko hitza dela.²³ Areago, baderitzat *cadira*-ren aipu hori Leizarraga jadanik ezagutzen zuelakoaren aldeko datua dela, 'aulkia' eta 'katedra' bi adierak lekukotzen baititu Testamentu Berriaren itzulpenean: biak erraz aurki daitezke Mateoren eban-jelioan (Mt 21, 12 eta 23, 2, hurrenez hurren; *ap. OEH*, s.v. *kadira*), zeina baita Larramendik Baionako kanonigo baten aletik kopiatu ahal izan zuen liburu bakarra alea hark itzularazi baino lehen (Telletxea Idigoras 1966; Urgell 2005: § 1.1). Egia da Etxeberri Ziburukoa ere izan daitekeela *kadira*-ren bi adieren iturria,²⁴ baina ziu-rragoa iruditzen zait Leizarraga.²⁵

Gainerakoetan *De la antigüedad*etik *HH*ra azalpena aldatu da (*cecina*, *cetra*, *chamarra*, *chocarrería*, *ciar*, *combate*) edo, gutxiagotan, zabaldu edo osatu (*camara*, *charla*, *cizalla*). Hiru hitzetan etimologia desagertu da *HH*an (*capelina*, *chistar* eta *chiste*),²⁶ behin etimologia iragarri bai (s.v. *acobardar* *cobarde*-ra bidaltzen du), baina gero egiatan desagertu da (*cobardia*), eta beste behin etimologi azalpena familiako

²¹ Hala ere, komeni da argitzea letra guztietan kopurua urrun dabilela *HH*n azkenik bildu zituen etimologia kopuru erraldoitik (C letran 200 baino gehiago dira, adibidez: cf. Urgell 2000b).

²² Larramendik Isastiren testu argitaragabea ezagutu eta erabili zuen (ik. Urgell 2000a: § III.11).

²³ «*Cadira*, silla de respaldo, y de ai se aplica á significar la Cathedra en Portugues. Dic. nada. Cris[is]. es Bafcuenze, y muy usado en Labort, y en ambas significaciones» (V 91).

²⁴ *OEH*ren arabera, Etxeberri ere bi adierak erabili zituen: 'aulkia' *Manualean* (EZ *Man* I, 39) eta 'katedra' *Noelaken* (Noel 72), eta Larramendik biak ezagutzen zituen gramatika idatzi zueneko: «Juan de Echeberri, Doctor Theólogo, que tuvo numen particular para componer en verso bascongado, como se reconoce así en el librito intitulado *Noelac, eta bercé cantá espiritual berriac*, como en el otro, que es de mayor volumen y se intitula *Manual devocionezcoa, edó ezperén orén oró escúetan erabiltzeco liburuchoá, Escórazco versután eguiñá, eta guztia bi partetan bereciá*» (Larramendi 1729: 374-375).

²⁵ Arrazoen artean, Mateoren ebanjelioaren kokapenaz gain, beste bi hauek aipatuko nituzke: batetik, Larramendik baliatu zituen euskal liburuetan Leizarragaren itzulpena *HH*ko iturri nagusia izateak; bestetik, Testamentu Berriaren itzulpena izateak lapurtarraren testua ulertzeko erraztasuna dakarrela —areago Etxeberriren bertsoekin konparaturik—.

²⁶ *Capelina*, egiatan *capellina*, *capacete* sinonimora daraman bidalketa-dei huts bihurtu da *HH*an. *Chistar* eta *chiste*-n ez dago etimologiarik, ez jakin zergatik.

beste hitz batera eraman da (*chorrear* > *chorro*; *contra* eta *contrario* > *contrariar*). Ezin esan gabe utzi, azkenik, *cenzaya* hitzetik *De la antigüedad*en eman zuen azalpen hau ezabatu zuela Larramendik: «es la única voz, á quien [*Autoridades* hiztegiak] en todo el segundo tomo da origen Bascongado», bai eta *chancha*-ren etimologiatik *chanchetan diot* adibidea ezabatu ere, besteak beste.²⁷

Amaitzeko, *HH*ko etimologiaren iturriez egin genuen lanarekin (Urgell 2000c) oraingo datuak erkatu eta gero, aipagarria da oso *De la antigüedad*en euskal etimologia esleitzen zaien C letrako 68 hitzetatik 13 (ia % 20) aitzindariaren batek landuak zirela aurretiaz: bat Etxabek (*capisayo*), beste bat Pozak (*cigarra*) eta gainerako hamaiak Oihenartek (*carrasco*, *cecina*, *celada*, *cencerro*, *charca*, *chia*, *chicha*, *chirriar*, *chocarrera*, *chochear* eta *choza*). Ondo uler bedi: etimologiak ez dira guztiak haiek proposaturikoak, baina Larramendik euskal etimologia eman zien gaztelaniatzko hitzak bai, eurek hautatutako berberak dira. Horrek iradokitzen du Villargordoren edizioa prestatu zueneko bazuela inork emandako etimologiaren zerrenda bat, eta hartara jo zuela Akademiaren hiztegiaren 2. liburukia irakurri ahala Villargordoren edizioko C letrako etimologiak lantzeko, batzuetan aitzindariaren azalpena osorik edo partez onarturik (*cecina*, *celada*, *cencerro*, *chicha*, *chocarrera*), eta bestetan ez. Hau lotu behar dugu A letran erantsi zuen *Alcarria* sarrerarekin, azaldu bezala hori ere Oihenartena baita eta, izan ere, *Autoridades* hiztegiak ez dakarren hitza. Alabaina, B letran ikasi dugunez, zerrenda hori, edo haren parte bat bederen, 1728rako osaturik zegoen, bertako iturri handiena den Oihenart lekuko.

C letrako etimologiaren zerrenda amaitutakoan (H 87-8 > V 103-6) lehengo testura itzultzen da: «Déxo tambien aqui...». Berdin-berdinak dira bukaerako pasartearen bi bertsoak.

2.5. Gainerako aldaketak

Han-hemen aldaketa txiki gehiago atzeman ditugu —gogora bedi ez dugula hitzez hitzeko erkakatarik egin, tamaina bateko aldaketak sumatzeko moduko azalekoago bat baizik—, haietako batzuk egilearenak nabarmen, eta beste batzuk inprimategiko langileenak bide direnak.

2.5.1. Larramendiren berariazko aldaketak

Aurreko ataletan ikusi ditugunez landako berariazko aldaketak edo eransketak oso gutxi dira, bost baino ez. Honakoak:

H 13-27 «arbitrariamente» > V 16-6 «voluntariamente».

H 18-23 «indignos de sugetos tan revestidos de perillas, y otras insignias *ad placitum* del saber, y doctrina» > V 21-2 «poco dignos de sugetos tan juiciosos, y de tanta doctrina y saber». Aldaketa hau Espainiako akademikoei dagokie eta, jakina, lotuta dago Villargordoren edizioko sarreran Larramendik Espainiako Akademiarekin adiskidetzeko egin zituen adierazpenekin (§ 2.3).

²⁷ *Txantxetan*-en lehenengo agerraldia da, *OEhk* (TXANTXETAN, s.v. 1 *txantxa*) lehenengotzat eman duen Kardaberatzenari (1761) hogeitaz bost baino gehiago —Villargordoren edizioa noiz datatzen dugun— kentzen dizkiona. Larramendiren horrelako euskarazko mikrotestuak biltzen ari gara *Monumenta Linguae Vasconum* ikertaldean, haren euskarazko idazlan eta lekukotasunak osatzeko helburuarekin.

H 26-23 «los Aranas, y otros sin numero» > V 28-26/28 «los Aranas, los Arces, los Salazares, los Bazanes: Item Garcias, Muñozes, Baiones, Navas, y otros sin numero». 1728ko bertsiotan abizen asko aipatu zituen (guztira hamalau), zeintzuei beste zazpi horiek gehitu zizkien. Lehen bulkada izan liteke pentsatzea handikiek ere, akademikoen antzera, beren kexak helarazi zizkiotela Larramendiri, nork bere sendia zerrendan ikusi nahirik, baina egiantzekoagoa da Espainian barrena hedaturik²⁸ ikusten zituen euskal etimologiadun deituren adibideak gehitu nahi izatea, besterik gabe: begien bistako *Salazar-ez* gain, *bahia*-k (*Baiones*) eta *nava*-k (*Navas*) euskal etimologia dute hiztegian, eta neke handirik gabe lot zezakeen *Muñoz muino*-rekin, besteak beste.²⁹

Bestalde, edizioari dagokionez, lerroen kontua H 26-28 lerrotik aurrera berreskuratatu zuen inprimategiko langileak, hau da, pare bat lerrotan, eta berriro lerroz lerro hasi zen erreproduzitzen.

H 33-25 «por las congruencias explicadas.» > V 36-1/3 «por las congruencias explicadas, que no deben ser desatendidas, por que uno, ù otro las llame arbitrarias.»

H 121-11/12 «En el tercero, se syncópa el primer dialecto» > V 135-2/3 «En el tercero *ecárten-dáronat*, *dáron*, *dáronagu*, *dárotén*». Hiketa azaltzen ari eta nokaren txanda iritsitakoan Larramendik 1728ko edizioan lehenengo eta bigarren euskalkien adizkiak bakarrik aipatu zituen, hau da, bizkaiera eta gipuzkerarenak. Hirugarren euskalkia «nafarrera edo lapurtera» da, hainbatetan eman zion izenaz aipaturik.³⁰ Gorago horrelakoak Baionako egotaldiarekin lotzen saiatu bagara ere, oraingo honetan erantsitako nafar-lapurterazko formak oro gramatikatik jalgiak dira: «Dialecto 2. Presente. *Jaten dáronat* yo te lo como, *dáron* él te lo come, *dáronagu* nosotros te lo comemos, *dárotén* aquellos te lo comen» (Larramendi 1729: 104-105).

2.5.2. Aldaketa txikiak, ustekabeak edo inprimategikoak

Inprimategiko langileen aldaketak direnetan edo izateko aukera gehien dutenetan, hona mota garrantzizko edo ugariena adibide gutxi batzuekin: akatsak zuzendu dituzte (H 16-9 *lasLenguas* > V 18-9/10 *las Len-/guas*; H 55-9 *tiennenen* > V 57-13 *tiennen*; H 59-22 *Lugaritos* > V 62-5 *Lugarcitos*);³¹ baita lerro «alargunak» (H 16-21/22 *ob-/jecion* > V 18-29 *objecion*; H 35-3/4 *visitar-/los*. > V 37-9 *visitarlos*.) eta gehiegizko zuriuneak ere (H 23-20/21 *entendi-/eron* > V 25-23 *entendieron*);³² lerro bukaerako hitzen zatiketa zuriuneak erabiliz saihestu dute noiztenka (H 29-3/4 *gran-/des* > V 30-8 *grandes*; H 29-4/5 *bar-/cas* > V 30-9 *barcas*; H 35-18 *llando ocupadas las demásProvincias,alar-* > V 37-23 *llando ocupadas las demás Provincias, / alargassen*), eta zatiketaren bat aldatu ere dute (H 26-14/15 *Es-/paña* > V 28-18/19 *Espa-/ña*).

²⁸ Ideia hori berak emana da: «Apellidos ilustrissimos de familias esparcidas por todas las Provincias de España» (H 26 = V 28). Halere, lehen zerrendan Mendoza, Zuñiga, Velasco, Osorio, Guevara eta Vela handiki izenak daudela ezin uka.

²⁹ Jakin nahi genuke, gure hipotesia egia balitz, *Garcia* nola azalduko lukeen, beranduago *hartz*-ekin lotu baita (ikus Mitxelena 1973: 267. zk.) eta egun gehienbat *gazte*-ren etimotzat hartua baita (cf. *EODA*, s.v. *Gartztea*).

³⁰ Larramendiren euskalki sailkapenaz oro har, ikus Urgell (2018: 646), eta xehetasun gehiagotarako Camino (2009: 485-488).

³¹ HHan ere *lugarcitos* dakar Larramendik.

³² Lerroa hutsunez beterik zegoen; konpondu dute eta, ondorioz, paragrafo-bukaera arteko gainetako lerro guztiak ere bai.

Halaber, grafia-aldaketak ikusten dira non edo han (H 21-6, 22-17, etab. *oy* > V 23-9, 24-20, etab. *hoi*; H 27-27 *biciesse* > V 30-5 *hiziesse*; H 60-19 *escribiendo* > V 63-3 *escribiendo*). Eta, jakina, ezinezkoa litzateke oharkabeen akats berriren bat ez egitea (H 17-24 *sucesion* > V 20-2 *succession*; H 39-24 *Pyrrha* > V 42-1 *Pyrra* [cf. bi lerro beherago *Pyrrha*]; H 111-21 *modos* > V 125-13 *modes*; H 122-10 *necesario* > V [VR-11] 136-3 *necesaria*; H 123-6 *excepcion* > V [VR-11] 136-25 *execpion*).

Hasieratik aipatu dugunez, Villargordoren edizioa 1728koa lerroz lerro kopia-turik egin zen. Halere, laburbildurik, noizteinka lehengo akatsak zuzendu zituzten, nahiz akats berriren bat oharkabeen itzuri, eta Villargordorenko langilearen irizpi-dea antzematen da han eta hemen zuriune larregizkoak eta lerro «alargunak» kon-pontzen, baita lerro artean hitzak zatitu edo ezeko erabakian ere. Zuzenketaren bat Larramendik egina izatea litekeena den arren, oro har hemen bildutakoak bera gabe ere azal litezke guztiak.

3. Lehenengo edizioaren bigarren *egoera* eta honen erlazioa bigarrenarekin

3.1. Vinsonen azterketa

Larramendiren euskarari buruzko hirukoteko lehen liburu argitaratuak bi edizio izan zituela jakiteko aski zatekeen ohi bezala Vinsonen *Essaira* jotzea (1891-1898: 50. zk.). Ezinbesteko urrats hori, esango nuke euskal liburuekin zorrozki bete ohi dutela euskalariak, baina gure adibide honek aditzera eman lezake ez dagoela halako zorroztasunik erdaraz idatzitako liburuekin, beharbada hizkuntzaren kanpoko histo-riarekin lotuago daudelako oro har, hizkuntzaren beraren bilakabidearekin baino.

Vinsonek bi edizioak jaso zituen, ohiko zolitasunaz, 50a eta 50b zenbakien pean. Eugenio Garcia de Honoratoren lehenengoaren kolazioa honela egin zuen: (i-ij) izenburua, (iij-vii) D. Juan Idiakezi eskaintza, (ix-xj) oharra irakurleari, 1-170 testua. Guri dagokigunez, gainera, biziki jakingarri den iragarpen bat egin zuen, alegia, «avis au lecteur» delakoa, jatorrian «Advertencia al lector» deritzona (ix-xj. or.), ale askotan falta bide dela, zeren eta bertan egileak adierazten baitu sal-gai ipinitako lehen liburuek sortutako esatekoei erantzun ahal izateko idatzi due-la.³³ Gure ondoko azterketan halako garrantzi bat izango duen atal horren testua 2. eranskinean bildu dugu.

1740 ingurukotzat jotzen ari garen Antonio Joseph Villargordoren edizioari bu-ruz, berriz, Vinsonek ohartarazi zigun osagai berak dituela, «Advertencia al lector» izan ezik: «Mêmes matières, moins l'avis au lecteur». Horrezaz gain, azpimarratzeko moduko pare bat ohar egin zituen: Villargordok *Artea*, hau da, Larramendiren gra-matika ere argitaratu zuela, batetik, eta horregatik ziurrenik Honoratoren edizioa

³³ «Coll. : p. (ij) titre, (iij-vii) dédicace à d. Juan de Idiaquez, (ix-xj) avis au lecteur, 1-170 disserta-tion. — L'avis (p. ix-xj) doit manquer à beaucoup d'ex., car l'auteur annonce qu'il l'a écrit pour répon-dre à certaines observations suggérées par les premiers volumes mis en vente» (Vinson 1891-1898: 50a). Ikerketaren honainoko urratsetan ikuskatutako lau liburutegietan batek ere ez daki, antza denez, atal ho-rrren berri eta, ondorioz, horrek alearen balio objektibo eta subjektiboan dakarren aldea. Bosgarren ba-tek, Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegiak, horren berri jakin ez ezik —Vinsoni esker, agerian denez— atal hori daukaten aleak ere baditu, zehazki bi, Pruden Gartzia zuzendariak adeitsuki bermatu digunez: AK-23/7 AT pergaminoz azaleztatua eta Lacombe bibliotekako OD-852, CD-0806 larruzko azalekoa.

baino geroagokoa dela. Bestetik, «Advertencia» ez egoteak aurkakoa iradoki lezakeela, alegia, bestea baino lehenagokoa izan litekeela.³⁴

Agerian denez, Vinsonen lanera jotzeak *De la antigüedad*en edizioen gaia are konplexuago bihurtu du, Salamancako bi edizioak ez ezik, 1728ko edizioaren aleen arteko gorabeherak ere sartu baititu ekuazioan.

Hurrengo atalean frogatuko dugu lehenengo edizioaren bigarren *egoera* horrek —«Advertencia al lector» daramanak— Villargordoren etxeko bigarren edizioaren sarrrerako aldaketa nagusia azaltzen duela (§ 2.3), eta haren aurrekaria dela.

3.2. «Advertencia al lector»etik bigarren ediziora

Vinsonen iritzian, litekeena da «Advertencia al lector» ale gutxitan egotea —«L'avis [...] doit manquer dans beaucoup d'ex[emplaires]» (Vinson 1891-1898: 50a zk.)— eta ondorio hori bera atera dugu gure behin-behineko ikerketatik. Azkenean, kostarik, British Libraryn gorde den «Advertencia»dun ale bat aurkitu dugu sarean, eta harekin egin dugu lan.³⁵

Vinsonek azaldu bezala izan zen, Larramendiren beraren hitzetan egiazta dezakeguz: «Aviendo entendido, que mi estilo en este tratado ha parecido aspero, y desabrido á personas inteligentes, que lo leyeron en los primeros exemplares, debo prevenir en los que restan lo siguiente». Alegia, lehenbiziko edizioaren lehen aleak saldurik, berak aintzat hartzeko moduko pertsonak helarazi omen zioten Larramendiri beren ezinegonaren liburuan darabilen estilo zakarragatik. Jadanik ikusi dugu bigarren edizioan horregatik desenkusutzen zela, baina lehenengo edizioaren «Advertencia al lector» atalean badirudi benetan oso goitik heldu zitzaioela errieta: «Pero en fin persuadido de lo contrario por personas, à cuya autoridad debo y quiero deferir ['behar eta nahi natzaio lotu'], me es preciso declarar, que no ha sido mi animo, causar la mas leve ofension a sugeto alguno, ni que decayga un punto de opinion, que se mereciere su caracter, su saber, y su erudicion». Badakigu, gainera, desenkusatu beharra hala Espainiako Akademiari nola beste nazioei helarazi nahi izan ziela. Pasartearen berez esanguratsua da, apologiaren argitalpenak izan zuen lehen uneko harreraren berri zuzena ematen baitigu.

Liburuaren bizitzaz ere zerbait esaten digu. Izan ere, bi testuak funtsean bat direla esan behar dugu, alegia, «Advertencia al lector»ekoa eta Villargordoren edizioaren sarrreran egin zuen eransketarena. Elkarrekin emango ditugu, batetik bestera nola heldu zen agerian jartzearen; irakurleak lehen begiratuan egiazta dezakeenez, testuak bat dira gehienez (nolabaiteko interesa daukaten aldaketak azpimarratu ditugu):³⁶

³⁴ «Cette édition étant imprimée par l'éditeur de l'*Arte* (n.º suivant) est probablement postérieure à celle de Honorato. L'absence de «l'avis» peut cependant faire supposer le contraire» (Vinson 1891-1898: 50b).

³⁵ Ale hori Google Books-en dago ikusgai (https://books.google.es/books/about/De_la_antigüedad_y_universalidad_de_Basc.html?id=o6ivus_JHEgC [azkenik ikusia: 2025-01-25]) eta, British Museumaren zizilua badarama ere, gaur egun British Libraryn dauden 1728ko edizioaren bi aleetako bat da, 886.b.2 kodeduna (kortesiako orrialdeetako batean eskuz irakurtzen da, «by Larramendi» oharraren azpian). Espainian halako beste bi ale aurkitu ditugu Ramon Llull Unibertsitatean REBIUNi esker, bata Montserratko monasterioan eta bestea ESADEn liburutegian, baina biak ere biak online ikustea ezinezkoa da.

³⁶ Grafiaz eta puntuazioaz gainerako aldaketak bakarrik jo ditugu interesgarritzat. Besteak, aldiz, gorago adierazi dugunez, egiantzekoa da denak edo gehienak inprimategiko langileenak izatea eta, nola-nahi ere, ez dute esangurarik guri dagokigun afera honetan.

Honorato (1728)	Villargordo (d.g.)
<i>Aviendo entendido, que mi estilo en este tratado ha parecido aspero, y desabrido á personas inteligentes, que lo leyeron en los primeros exemplares, debo prevenir en los que restan lo siguiente.</i> Mi designio, como lo descubro bastantemente á la primera entrada, ha sido acomodar el estilo, no solo al caracter de la Apologia (que de su natural no lleva <i>el estilo</i> muy suave, y suele gastar mas picante, que dulce), sino mucho mas al ayre de un Bascongado amartelado de su Lengua; el qual picado de las continuas chanzas, ò burlas, que oye contra el Bascuenze, se vale de las mismas armas á su modo, y procura defenderse como Dios le ayuda, dexandose llevar de la intrepidez genial de su Pais, sin detenerse en pulir frasses, ni atarse á comedimientos, y cortesánias. Y como este ayre intrepido, atufado, y brusco (si puede passar esta voz Francesa) de un Bascongado puesto en defensa de su Lengua, no solo no ofende, ni enfada en las conversaciones ordinarias, sino que divierte, y cae en gracia; y en lugar de causar acedía, causa gusto, combidando à dar con dichos festivos mas y mas materia al despique: assi me <i>persuado</i>, que <i>sucedrá</i> en lo escrito, y que todos lo <i>leerán</i> de buen humor, y en tono mas de festividad, que de aspe- reza. <i>Pero en fin persuadido de lo contrario por personas, à cuya autoridad debo y quiero deferir</i>, me es preciso declarar, que <i>no ha sido</i> mi animo, causar la mas leve ofension a sugeto alguno, ni que decaiga un punto de la opinion, que se mereciere su caracter, su saber, y su erudicion: partidas, que, donde se hallaren, estarán siempre muy à cubierto de todo insulto, que pueda aprehenderse de mis impugnaciones, y crisis. Y especificando en particular lo que <i>parece averse notado</i> mas, digo, que reconozco à la Academia Española por un gremio muy respetable, assi por otros capitulos, que le hazen acreedor de toda atencion, como por componerse de sugetos de una literatura conocida, y exquisita erudicion. Cuyo Diccionario aprecio como obra de grandissimo estudio, llena de especies selectas, de madurez en la censura, de reflexion curiosa en la calificación de voces, frases, axiomas, y en fin utilissima, no solo para el credito de la Nacion, sino tambien para las bellas Letras en nuestra Lengua Castellana. Y si en este Tratadito estoy de mal humor con el Diccionario, es solamente por el sentimiento justo, que nos da	<i>Con esto descubro bastantemente</i> mi designio, que ha sido acomodar el estilo, no solo al caracter de la Apología (que de su natural no lleva <i>el estilo</i> muy suave, y suele gastar mas picante, que dulce), sino mucho mas al ayre de un Bascongado amartelado de su Lengua; el qual picado de las continuas chanzas, ò burlas, que oye contra el Bascuenze, se vale de las mismas armas à su modo, y procura defenderse como Dios le ayuda, dexandose llevar de la intrepidez genial de su Pais, sin detenerse en pulir frases, ni atarse à comedimientos, y cortesánias. Y como este ayre intrepido, atufado, y brusco (si puede passar esta voz Francesa) de un Bascongado puesto en defensa de su Lengua, no solo no ofende, ni enfada en las conversaciones ordinarias, sino que divierte, y cae en gracia; y en lugar de causar acedía, causa gusto, combidando à dar con dichos festivos mas y mas materia al despique: assi me <i>persuado</i>, que <i>sucedrá</i> en lo escrito, y que todos lo <i>leerán</i> de buen humor, y en tono mas de festividad, que de aspe- reza. <i>Con todo</i> me es preciso declarar, que <i>no es</i> mi animo, causar la mas leve ofension à sugeto alguno, ni que decaiga un punto de la opinion, que se mereciere su caracter, su saber, y su erudicion: partidas, que, donde se hallaren, estarán siempre muy à cubierto de todo insulto, que pueda aprehenderse de mis impugnaciones, y crisis. Y especificando en particular lo que <i>podrá notarse</i> mas, digo, que reconozco a la Academia Española por un gremio muy respetable, assi por otros capitulos, que le hazen acreedor de toda atencion, como por componerse de sugetos de una literatura conocida, y exquisita erudicion. Cuyo Diccionario aprecio, como obra de grandissimo estudio, llena de especies selectas, de madurez en la censura, de reflexion curiosa en la calificación de las voces, frases, axiomas, y en fin utilissima; no solo para el credito de la Nacion, sino tambien para las bellas Letras en nuestra Lengua Castellana. Y si en este Tratadito estoy de mal humor con el Diccionario, es solamente por el sentimiento justo, que nos da à los Bascongados, en hazer tan poco caudal del Bascuenze, cuya noticia, aun en sentir de eruditos <i>desapasionados</i>, parece indispensable para el acierto de su empresa. Nada mas significan mis reconvenciones, aun quando no se lean con el ayre, y tono, que he

Honorato (1728)	Villargordo (d.g.)
á los Bascongados, en hazer tan poco caudal del Bascuenze, cuya noticia, aun en sentir de eruditos <i>apasionados</i>, parece indispensable para el acierto en su empresa. Nada mas significan mis reconvenções, aun quando no se lean con el ayre, y tono, que he dicho. Declaro tambien, que quanto digo de otras Lenguas, es en una total abstraccion del merito, nobleza, y qualidades de las Naciones, que las hablan: las quales (quien lo puede dudar?) no tienen pendiente su honor, y reputacion de los atributos Grammaticales de sus Idiomas. Además, que nada digo yo, que en estos puntos de Critica no ayan dicho muchas veces Autores graves, aun hablando de sus proprias nativas Lenguas; sin incurrir por esso en la nota de maldicientes contra sus Patrias, ò las agenas.	dicho. Declaro tambien, que quanto digo de otras Lenguas, es en una total abstraccion del merito, nobleza, y qualidades de las Naciones, que las hablan: las quales (quien lo puede dudar?) no tienen pendiente su honor, y reputacion de los atributos Grammaticales de sus Idiomas. Además, que nada digo yo, que en estos puntos de Critica no ayan dicho muchas veces Autores graves, aun hablando de sus proprias nativas Lenguas, sin incurrir por esso en la nota de maldicientes contra sus Patrias, ò las agenas.

Aldaketak nîmiñoak dira, baina esanguratsuak. Hiru azpimarratuko ditut: (a) Larremendik hasierako gertakaria ezabatu du, hots, 2. edizioaren irakurleak ez daki lehen aleak irakurri zituzten pertsona buruargi haiek ez zutela ondo hartu apologia- ren tonu zakarra; (b) ildo beretik, 2. ediziotik desagerrarazi ditu bere gainean nola- baiteko agintea zeukaten haiek, itxuraz errietan egin ziotenak edo gutxienez irakurle zenbaiten ezinegonaren berri eman ziotenak; eta (c) lehenaldian eta subjuntiboan emanak (*persuadi, sucedería, leerían, no ha sido, parece averse notado*) orainaldi eta ge- roaldi bihurtu ditu (*persuado, sucederá, leerán, no es, podrá notarse*). Funtsean, bada, Larremendik lehen aleak saldu eta gero jasan zuen estualdiaren nondik norakoak osoki ezabatu ditu 2. ediziotik, baina, orduko eskarmentuaz ongi baliaturik, sarrera- ren bertsio berrian irakurlea berariaz prestatzen du liburua berak nahi bezala irakurri eta ulertzeko, hau da, ez zakarki, txantxetan-benetan ari den euskaldunaren tonuan baizik.

Aldaketa horiek Villargordoren edizioaren dataziorako dauzkan ondorioak behe- rago aletuko ditugu (§ 4.1).

4. Villargordoren edizioaren dataziorako

Euskal bibliografietan ez dago *ca.* 1740ko data, ez Vinsonenean (goraxeago ai- patu dugu), ez Sorarrainenean (1848: 199. zk.), ez Bilbaorenean (1976-1980: II, 737). Espainiako Liburutegi Nazionaleko (BNE) aleetan aurkitu dugu; adibidez, er- kaketak egiteko baliatu dugun 3/35459 kodedun alean.³⁷ Ale horren fitxak hauxe dio: «Fecha aproximada obtenida de Palau [132.043]», eta horrelaxe dela egiaztatu dugu, nekez bada ere, Palauren bibliografia erraldoiaren bigarren edizio zuzendu

³⁷ *Lau haizeetara* Bizkaiko Foru Liburutegiaren liburutegi digitalean zein Sancho el Sabio Funda- zioaren eta Euskaltzaindiaren katalogoetan ere topatu dugu data bera, galdera markarekin. Koldo Mitxe- lena liburutegiaren katalogoan, aldiz, lehenengo bi zenbakiak bakarrik («17--?»).

eta emendatuan.³⁸ Askoz geroagoko Aguilar Piñal-en XVIII. mendeari buruzko bibliografian ere (1989: 359. zk.) bederen «hacia 1740» kokatzen da. Edonola ere, ez dugu jakiterik izan datazio hori zertan oinarritzen den. Eskura ditugun datuak erabiliko ditugu, bada, Larramendiren *De la antigüedad* 2. edizioaren data ahaleginean finkatzeko.³⁹

4.1. Villargordoren edizioa 1728 ostekoa da

Lehenik eta behin, uxatu egin behar da Vinsonen zalantza, alegia, Villargordoren edizioak «Advertencia al lector» atalik ez duenez, Honoratoren baina lehenagokoa ote den. Jadanik datu bat baino gehiago bildu ditugu aukera horren kontra, baina hiru garrantzizko aipatuko ditugu hemen: C letrako etimologiak, Idiakezen tituluak eta sarrerako 70 lerroko eransketa handia. Ikus ditzagun banan-banan.⁴⁰

Batetik, 1729an argitaratu zen Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades* hiztegiaren 2. liburukiarekin (zeinak C letrako hitzak jasotzen dituen) zerikusi zuzena dituzten C letrako hitz batzuen euskal etimologiak Villargordorenean erantsiak dira, gorago ikusi dugunez (§ 2.4.3). Horrek 1729ko *post quem* data ematen digu.

Bestetik, Larramendik eskaintzan jasotako Idiakezen tituluak gehiago eta garrantzikoagoak dira Villargordorenean. Hurrengo atalean landuko dugu horrek zer esan nahi duen datazioari buruz (§ 4.2).

Eta, azkenik, 1728koaren bigarren egoerako «Advertencia al lector» egon ez dago, baina bertako ideia nagusiak Villargordoreneko «Introducción» atalean erantsi zituen Larramendik, hitzez hitz erantsi ere, «Advertencia» ezabatu eta liburua trinkoago egiteko edota, gorago proposatu dugunez (§ 3.2), erabilitako tonuaz agintariek errieta emanik bere burua desenkusatu beharrean, erasora igaro eta irakurleari liburua nola ulertu behar duen alde aurretik azaltzeko.

³⁸ Palauren lehen edizioan (1926 [1990]: IV. liburukia, H-LL, 186-187) ez dago urterik: «Esta obrita se reimprimió en Salamanca, A. J. Villagordo [sic], sin año 8.º 5 h. 184 p.». Bigarrean ere, lehen begiratuan ematen du ez dagoela; halere, BNEren katalagoak eskainitako Palauren 132043 zenbakiari esker *El imposible vencido* Larramendiren gramatikaren 1729ko lehenengo edizioaren azpian ediren dugu, okerreko lekuan, haren berrargitalpena bailitzan (Palau 1954: VII. liburukia, I-L). Bidenabar, Palauk *De la antigüedad* hirugarren edizio are ezezagunago baten berri jaso zuen, hau ere okerreko lekuan (132044. zk.), «Bilbao, 1860». Badirudi hirugarren edizio horren iturria Sorarrain (1848: 199. zk.) dela. Edizio hori Irurac-bat-en inprimategian egin omen zen (Google Books-en arabera), baina ez dut inon aurkitzerik izan: beldur naiz ez ote den Irurac-Bat-ek urte berean argitaratu zuen Etxaberen *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada* apologiarekin nahasi, antzeko izenekoak direnez gero. Nolanahi ere, Bilboko egunkariaren inprimategitik bestelako lanak atera izana ematen du aski ezezaguna dela oro har, nahiz biziki jakingarria izan.

³⁹ *De la antigüedad*, ezagun ez ditudan arrazoiengatik, azalean «Con las licencias necesarias» ipini arren bi edizioetan, baimen eta tasarik gabe argitaratu zen, gure zorigaitzean, halako atalek dataziorako aztarnak eskaini ditzaketelako, gorago ikusi dugunez (8. oh.).

⁴⁰ Beharbada erabakigarria ez izan arren, gure ondorioekin bat dator Biblioteca Virtual Cervantesek argitaratzaile horri buruz finkatu hasiera-bukaera datak («aproximadamente 1729-1777»), jardunean noiztik noiz arte aritu zen adierazten bide dutenak (<https://www.cervantesvirtual.com/obras/autor/villargordo-y-alcaraz-antonio-jose-fl-1729-1756-29855>).

4.2. Idiakezen kargu eta bestetatik eratortzen diren datak

Goragoko erkaketan (§ 2.2) ikusi dugu eskaintzan Idiakezi esleitu zizkion tituluak aldatuak eta emendatuak direla argitalpen batetik bestera. Idiakezek tituluak noiz eskuratu zituen jakinez gero, baliteke Villargordoren bigarrena zehatzago datatu ahal izatea.

Juan de Idiáquez y Eguía (Azkoitia 1665-Madril 1736), guretzat Joan Idiakez, xvi. mendetik aitzina Espainiako monarkiarentzat lan egin zuen handiki familia gipuzkoar entzutetsuaren kideetako bat da. Ezaguna da Espainiako Felipe V.a erregearen itzalpean postuz postu igo zela eta postu horietatik lagundu zituela beraren senitarte eta lagunartea. Idiakezen babespean jartzeak adierazten du Larramendi gipuzkoar babes-sare handienaren kide zela, eta Espainiako handienetako batena (ikus Guerrero Elecalde 2012: 293-389; ikus halaber Imízcoz & Bermejo 2016).

Gaztetandik Flandriako Tertzioetan aritu eta gero, Felipe V.aren gortean ibilbide nabarmen bizkor bat egin zuen. 1704-1721 artean «Guardias de Corps» direlako armadako gorputz prestigiotsuena —erregearen bizkartzainak— osatzen zuten lau konpainien sarjentu nagusia izan zen. Kargu horrek erregearekiko hurbiltasun handia ematen omen zion, berarekin aztertzen baitzituen Guardia horien Estatu Nagusiko langile administratibo zein teknikoen izendapenak. Kargu horretatik arin joan zen gora mailaz maila armadan. 1706an teniente jeneral izendatu zuten, eta gero kapitain jenerala. Errege-familiarekiko konfiantza erlazioagatik, don Fernando infantearen etxea gobernatzeko hautatu zuten: 1721ean infanteak gela bereizi bat izateko garaia etorri eta gelaren gobernatzaile izendatu zuten; 1724an Fernando Asturiasko Printze bilakaturik haren tutore, eta 1725ean Fernando VI.a izango zenaren Corps-eko sommelier.⁴¹

Horrelako zerbitzuak eskertzeko, erregeak monarkiaren ohore mailan goraino eramane zuen. 1708an Done Jakueren Ordenaren abitua hartu zuen, Yeste eta Taibillaren enkomendarekin.⁴² *Iure uxoris*, hau da, Mariana de Velasco e Ibáñez de Segovia lehengusu txikiarekin ezkontzearen, Salazar eta Castilnovoko konderriak eta Gramosako markeserria ere beretu zituen, besteak beste.⁴³ Granada de Egako dukerria izan zuen titulurik garrantzitsuen, lehen mailako «grandeza de España» baitauka, hau da,

⁴¹ Datu gehienak Guerrero Elecalderen lanetatik hartu ditugu (d.g., 2012 eta 2017). Datu honi edo hari egindako erreferentzia zehatzagoak zein bere lekuan aipatu dira.

⁴² Yeste eta Taibillako enkomienda xiii. mendean sortu omen zen, erlijio-ordenek Murziako erre-suma konkistatu ahala, gaur Albaceteko probintziaren hego-mendebala osatzen duten herriak zehazkiago (Rodríguez Llopis 1982). 2024ko uholde handietan zorigaitzez ospetsua egin den Letur-en albo-alboan.

⁴³ Cf. Guerrero Elecalde (2012: 312). Mariana, María Ana eta are María Antonia ere ikusi dugu izendaturik. Vegas de Matute udalerrriaren webgunean (Segovia, Espainia), erreferentziarik eta egilearen izenik gabe, honako datu hauek aurkitu ditugu: «La Decimonovena Señora de Las Vegas fue *Doña Mariana Ana de Velasco e Ibáñez de Segovia*, heredó el título en 1709. IV Marquesa de Gramosa, Condesa de Salazar, Condesa de Castilnovo y Vizcondesa de Las Vegas de Matute. Se casó con Don Juan de Idiáquez y Eguía, Duque de Granada, de Egea [*sic*]. Grande de España. Mueren sin sucesión» (<https://www.vegasdematute.es/historia/> [noiz ikusia: 2024-06-13]). BNEko dokumentuetan «doña María de Velasco y Aragon, Condesa de Castilnovo, y Don Juan de Idiáquez su marido» bezalakoak erraz aurkitzen dira, eta Nafarroako Foru Artxiboan prozesu honen berri izan dugu: «Juan de Idiáquez y Eguía contra el Fiscal, el Patrimonial y otros, sobre información relativa a concesión de cedula de acostamiento de 300 ducados» (1702.09.30-1702.10.07).

Espainian handiki-titulu gutxik erantsia daramaten maila gorena. Berarentzat sortu zuen Erregeak, 1729ko martxoaren 29an.⁴⁴ 1736ko irailaren 9an zendu zen.

Erka ditzagun Idiakezen bizitzari buruzko xehetasunok Larramendik *De la antigüedad* 1728ko edizioan dioenarekin:

CONDE DE SALAZAR, TENIENTE / General de los Exercitos de su Mag. / Sargento Mayor de las Quatro Com- / pañas de sus Reales Guardias de / Corps, y Governador del Señor / Principe de Asturias.

Lehenengo eskaintza hartan, bada, lau titulu esleitu zizkion Larramendik: Salazarko konde (ezkondu ondokoa), teniente jeneral (1706), sarjentu nagusi (1704) eta Asturiasko Printzearen gobernatzaile (1721). Ez dugu ezkontzaren datarik eskuratzetik izan, baina gainerakoan aipatutako karguak 1728ko argitalpena baino lehenago-koak dira guztiak, bistan da, eta orokorrean aski lehenagokoak.

Bigarrenean tituluak biziki aldatu eta emendatu dira, dakigunez:

CABALLERO DEL ORDEN / de Santiago, / Duque de Granada / de Ega, Conde de Salazar, Sumiller / de Corps del Principe N. Señor, / Gobernador, y Capitan General / de los Exercitos de España, Sargento / Mayor de las Reales Guardias de / Corps de su Mag. y Comendador / de Yeste, y Teivilla en la / Orden, y Caballeria / de Santiago.

Bigarren eskaintza horretako izendapen berriak honako hauek dira, kronologiki antolaturik: kapitain jeneral (1706 ondotik: ez dugu data zehatzik lortu), Done Jakueren ordenakide (1708), Printzearen Corps-eko sommelier, hau da, beraren eta bere gelen arduradun (1725) eta Granada de Egako duke (1729). Agerian denez, 1728ko bertsioan titulu batzuk faltan izanik Villargordorenean gehitu ziren, baina 1728tik aurrerakoetan, guri dagokigunez, Granada de Egako dukerria bakarrik erantsi zen, 1729ko *post quem* data zehatza eskainirik, hots, *De la antigüedad* bigarren edizioa *Imposible vencido* gramatikaren ostean egina dela pentsarazirik, eta gogora degagun haren inprimategi beretik aterea ere badela.

Datu horrek iradokitzen duena gutun batean Larramendik berak berretsirik aurkitu dugu ezustean, Guerrero Elecalderen lanari esker (2012: 331-334):⁴⁵ «Ayer recibí carta de Salamanca en que me avisan que estaban ya encuadernandose los Artes a toda prisa» esan ostean, «Estimare también que V. M. me envíe los títulos que tiene el sr. Idiaquez por si es menester reimprimir el librete [*De la antigüedad*] como quieren algunos» idatzi zion Larramendik Juan Francisco de Arriaga Gipuzkoako Probintziaren ordezkariari, Valladolidetik, 1729ko azaroaren 16an (*ap.* Berruezo 1966: 14-15).

Hala bada, horrezkero ziurtzat eman behar dugu Villargordoren edizioa Honoratoren 1728koa baino geroago egina dela (cf. § 4.1), eta, ezbairik gabe, 1730ean goizenik. Zorigaitzez, baina, Larramendik eskaintzan bildu Idiakezen karguek ez digute bigarren argitalpenaren data zehatzagorik lortzen laguntzen. Errua ez da Larramendiri karguen berri eman behar zion harena: egiazki, 1728tik aitzina nekez izan zeza-

⁴⁴ Gaztelaniazko Wikipediari esker *Diputación Permanente y Consejo de la Grandeza de España y Títulos del Reino* webguneko bilatzailera heldu gara (<https://diputaciondelagrandezaytitulosdelreino.es/>), eta bertan egiaztatu ofizialki data horretan egindako izendapena dela.

⁴⁵ Guerrero Elecaldek Larramendiren euskarari buruzko lanei eskaini zizkien tarte horretan biziki interesgarriak diren beste berri batzuk bildu ditu, hala nola gramatikaren ale kopuruaz eta Gipuzkoak ordaindurik Penintsulan eta Ameriketara izan zuen zabalkunde handiaz, euskaldunen artean batik bat.

keen Idiakezek dukerri hura eta hari atxikia zen Espainiako Handitasuna baino gorago joaterik.

Idiakezen gorteko ibilbidea une batetik bukaeraraino erregearen semeari lotua garatu zen, bada, baina ez zuen izan hura erregeturik ikusterik (1746), hamar urte lehenago zendu baitzen (1736). Argigarri izan daiteke Idiakezen heriotzaren data hori, *ante quem* datatzat har baitezakegu. Egia da ez litzatekeela ezinezkoa Idiakez zendu arren Larramendik eskaintza bere horretan uztea, baina esango nuke berri bat idaztea espero litzatekeela, Axularrek Etxauzi egin zionaren antzekoagoa.

Larramendik, ordea, beste bide bat hartu zuen Idiakezen heriotzaren urtean berean edo, hobeto esanda, ziurrenik urteren bat lehenagotik, laster azalduko dugunez. *Discurso histórico* hurrengo argitaratua (1736) Don Fernando Asturiasko printzeari eskaini zion, hots, Idiakezen ardurapean egon zen Felipe V.a erregearen semeari. Ziurtzat jo behar dugu, orduko babes-sareen ohiko jardunaren arabera (cf. Guerrero Elecalde 2012: 287 eta hur.), aldaketa hori ez zuela Larramendik berez egin, Idiakezen isilean edo bera gabe, nahitaez beraren babespean eta beraren bitartez baizik. Nolanahi ere, aldaketa horrek balue esangurarik dagokigun aferan honetan eta 1736ko *ante quem* data berresten ere du.

Bestalde, aukera dago *Discurso históricoren* eskaintza hori ez 1736koa, baizik eta 1732koa izatea, «Carta del autor» delakoa, egileak irakurleari paratu zion gutuna, testuaren sarrera modura legezko atarikoen ondoren kokatua, Sevillan 1732ko urriaren 10ean sinatua baita: gogora dezagun Larramendi Sevillako gortean zegoela sasoi hartan, Baionatik etorririk orduan bere nagusia zen ama-erreginaren mandatuz.⁴⁶ Errazago dirudi, nik uste, eskaintza hori Asturiasko printzeari egiteko asmoa eta onespena orduan hartzeak, 1733 ondoren baino, ama-erreginaren baimenik gabe Baionatik ihes egin eta Loiolara erretiratu ondoren, alegia. Besteak beste, argi dago Idiakez Sevillan zegoela orduan, oraindik ere gortean eta onik, antza denez: izan ere, Larramendiren autobiografian hala ageri da eta, gainera, aspaldiko adiskidetzat jotzen du (*ap.* Telletxea Idigoras 1973: 11). Areago, Asturiasko printzeaz eta haren emazteaz ari dela, «Fernando y María Bárbara» deritze (*ap.* Telletxea Idigoras 1973: 11), Idiakezen bitartez haiekin izandako konfiantza handiaren seinale.

Gramatika ere Villargordorenean irten zen, Salamancan; *Discurso histórico*, aldiz, Madrilen, Juan de Zuñigarenean. Gramatika inprimategira bidali zuenean oraindik Salamancan zegoen, baina, ikusi dugunez, 1729aren amaieran, hura koadernatzen ari zirenean, Lagundiak Valladolidera aldatu zuen.⁴⁷ Bertan hilabete batzuez irakasle jardun eta urtea ozta-ozta eginik ama-erreginak Baionara deitu zuen 1730eko azaroaren erdialdean, beraren aitorle egin zezan. 1730 amaieran edo 1731 hasieran hara dugu (Altuna 1992: 16). Datuok ere 1730-1732 tartearen alde datozela esango nuke, Valladoliden Salamancarekiko gertutasuna poliki gorde zuela dokumentaturik baita-

⁴⁶ Cf. Altuna (1992: 17), eta batez ere Larramendik berak autobiografian kontatua (*ap.* Telletxea Idigoras 1973: 10-18).

⁴⁷ Altunaren iritziz (1992: 14), 1728ko udan aldatu zuten. Alabaina, Berruezok (1966) bildutako gutuneriaren arabera, ez dago dudarik Larramendi 1729ko azaroan heldu zela Valladolideko ikastetxera, berak esanda: «Muy Sr. mio. Habra como ocho dias que llegue a este Colegio de San Ambrosio bastante reforzado de mis males, donde ya he empezado, aunque con algún tiento, con esta faena de la catedral» (Larramendik Juan Francisco de Arriagari, Valladolidetik, 1729ko azaroaren 16an; *ap.* Berruezo 1966: 14-15) eta «el Rmo. P. Manuel de Larramendi pasa a Valladolid y deja concluyendo el Arte Bascongado» (Arriagak Gipuzkoako Probintziari, Madrildik, 1729ko azaroaren 19an; *ap.* Berruezo 1966: 15).

go,⁴⁸ geroago ez bezala beharbada, ama-erreginaren zerbitzuak asko eskatzen zuelako, Sevillako gortean eman behar izan zuen denboratik kanpo ere.⁴⁹

Azkenik, baina ez txikienik, *Diccionario de Autoridades*en hirugarren liburukia (D-F) 1732an argitaratu zen, Larramendi Baionan zelarik (edota Sevillan, dakigunez). Oihenarten eredu gorabehera, nekez pentsa daiteke D-Fko etimologiak ere eztabaidatzeko aukerari uko egingo zionik Villargordorena 1732 ostean irten balitz.

Horregatik guztiagatik, Villargordorena bi dataren artean kokatuko nuke: zabalena baina ziurrena, 1730-1736, alde batetik *De la antigüedad*en bigarren edizioa egiteko asmoa eta, bestetik, Idiakezen biziaren azken urtea aintzat harturik; egiantzeko, zehatzago baina espekulatiboagoa, 1730-1732, *Discurso histórico* idazten bukatu⁵⁰ eta beharbada eskaintza Asturiasko printzeari egiteko asmoa hartu eta haren baimena lortu bide zueneko hobetsirik. Horrekin batera, ezin ahaztu 1734an Loiolara heldu zela azkenik —maiatzean-edo, Altunaren ustez (1992: 18)— eta han hiztegiari buru-belarri heldu ziola burutu arte. Alabaina, Villargordoren edizioaren eta *HH*aren arteko erlazioaz hurrengo atalean arituko gara.

4.3. Etimologietatik ondoriozta daitekeena

Gorago aztertu ditugu Honoratoren argitalpenetik Villargordorenera etimologia zerrendan gertatutako aldaketak eta eransketak (§ 2.4). Haietan hiru datu esanguratsu bildu ditugu honako.

Lehenbizikoa da Larramendik *De la antigüedad*eko A letrako etimologietan egin zituen aldaketa eta eransketa asko bat datozela *HH*koekin (§ 2.4.1). Horrek adieraz lezake hiztegiko A letra egin zukeela bertsio sendo batean, edo A letraren parte bat bederen, agian AL artekoa bakarrik.⁵¹

Jadanik aztertua da *HH*ko A letrak hainbat alorretan daukan berezitasuna gainerako letrekiko, eta hiztegiak B letratik hasi eta Zraino hartu zuen norabide berria —trinkoago, sistematikoago eta egingarriago bihurtua— Loiolara 1734an erretiratu izanarekin lotu da (Urgell 2002a: 636-639).

B letrako etimologietan bi edizioen artean ez dago aldaketarik batere (§ 2.4.2). Horrek ere iradokitzen du orduraino hiztegiko A letra (edo haren zati bat, ikusi berri dugunez) bakarrik zeukakeela landua eta horregatik ez zeukan ez etimologia berririk, ez lehengoak zuzentzeko zio berezirik.

⁴⁸ Altunak (1992: 14) argi azaldu zuen: «Salamankan aurreko lau urteetan zain handiak bota zituen eta [...] sarri deitu zuten une hartan Salamankatik ekinga akademikoetara nahiz elizakoetara». Pasarte horren ondotxoan lau adibide aurkituko ditu horretaz interes lukeenak.

⁴⁹ «Erreginaren ez ezik, haren etxean bizi ziren guztien aitorle eta arimen arduradun ere bazen, eta ez ziren gutxi; orduko —eta oraingo— zenbait herrixkako biztanleak adina. Mila lagun pasa, alafedea, morroien eta neskameen, korteko andereen eta zaldunen, izkribau, mediku eta gainerako zerbitzarien artean [...]. Esker-rrak artalde hura zaintzeko bazuen Larramendik laguna, [...] aita Domingo Elemendi lekeitiarra. Bien artean banatzen zituzten elizako eginkizunak, mezak, sermoiak, aitortzak, eta abar» (Altuna 1992: 17).

⁵⁰ Ikusi dugunez (8. oh.) ez litzateke harrigarria hilabeteak ez ezik, urteak ere igarotzea liburua bukatu zutenetik iniritziak lortu eta argitaratu bitartean. Gure kasuan 1736koak dira guztiak: Francisco de Mirandarena (1736-01-25), Antonio de Goyenecherena (1736-08-07) eta Antonio Vazquez Goyanesena (1736-08-09).

⁵¹ Gorago azaldu bezala, AL konbinazioko *alba* eta *alzar* sarrera berriak partekatzen dituzte Villargordorenak eta *HH*k; berriz, *Alcarria*, *aorza* eta *aosadas* hiztegirako bidean desagertu dira, *andrajoso* eta *angosto*-ren etimologiak familia etimologiko bereko beste hitz batera igaro dira, etab.

*De la antigüedad*en bigarren edizioan berriki sartu zuen C letran, ostera, kidesasun nabariak, baina baita aldeak ere topatu ditugu HHrekiko (§ 2.4.3). Honoratoren ediziotik Villargordorenera A letrako etimologietan egin zuen lana aintzat harturik, horrek gauza bat eta bakarra adieraz lezake hasiera batean: etimologia horiek hiztegirako berrikustera-koan, batzuk onartu eta bestetzek zuzendu edo alde batera uztea erabaki zuela. Bortxaz adierazten du, halaber, Villargordorenetik HHko C letrako etimologiak ondu artean nolabaiteko denbora-tartea izan zela, iritziz aldatu eta etimologiak berregiteko adinakoa.

Bestalde, *cadira* sarreran Larramendik lapurterazko usadioa, bi adieratan gainera, ziurtasunez aipatzeak baduke ondoriorik bilatzen ari garen kronologian. Egia da *De la antigüedad*eko etimologietan usu ageri direla lapurterazko lekukotasunak, baina A letrakoetan guztiak Oihenartenak dira (§ 2.4.1), bai eta B letrako bi agerralditan bat (s.v. *bahia*). B letrako bigarrena, *bandatu* (s.v. *banda*), aldiz, ahozko jardunetik harturakotzat jo dugu, eta Baionako egotaldiarekin lotutakotzat (§ 2.4.2). Bada, C letrako *cadira*-ren bi adierak (s.v.) Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpena ezagutzeari egotziko nizkioke, eta hori ezagutu, Baionan ezagutu zuen bertako kanonigo batek utzi zion aleari esker (Urgell 2005: § 1.1).

Datu horrek berresten du gorago hartu dugun erabakia, alegia, Villargordoren argitalpenaren *post quem* data 1729tik 1730era atzeratzea, Baionara heldu zen urtea gogoan harturik, besteak beste, eta argitalpen tartea 1730-1736 artean kokatuko genuke edo, ausartago jokaturik, 1730-1732 artean, hots, Sevillan bereak eta bost igaro ondoren munduko zalapartatik aldentzeko erabakia hartu (1732), Baionara itzuli, ama-erreginarekin tirabiratan aritu, Donostiara ihes egin (1733-1734) eta Loiolara erretiratu (1734) baino lehen.⁵²

5. Ondorioak

Nahiz eta 80ko hamarkadatik aurrera Larramendiren *De la antigüedad* liburuak (1728) bere egitasmoaren barnean izan zuen egiteko garrantzizkoa onartua izan eta, beraz, haren (berr)irakurketa egile batek baino gehiagok egin, hutsune larri bat dago horri dagokionez: haren argitalpen bizitza ezagutzea.

Lan honetan, Vinson eta Palau bibliografoen lanari esker batik bat, *De la antigüedad*ek guztira bi edizio —agian hiru— izan zituela ikasi dugu aurrenik, gure mendean eskura izan dugun Ediciones Vascasekoa (1973) alde batera utzirik: bat, 1728ko *princeps*a, Salamancan Garcia de Honoratorenean egina; bi, data gabeko bat, garaitsuan Salamancan bertan Villargordoren etxetik irtena; eta, hiru, *Irurac-bat* Bilboko egunkari foruzale liberalaren inprimategian egina (1860), oraindaino bermatzerik izan ez duguna.

Lehenengo biak izan dira gure lanaren xedea, biak ere biak Larramendi bizirik zela eta haren ardurapean irten baitziren, ondoko lerroetan laburbilduko ditugun datuek bermatzen dutenez. Bien arteko eraketatik (§ 2) ondorioztatu dugu funtsean liburu bat eta bera dela bietan —Larramendiren egitasmoaren aurkezpenari eta euskal lexikoa aberasteko teoriari dagokion guztian batez ere— eta, beraz, bi edizioen kontu hori aintzat hartu gabe egindako baieztapenek ez dutela beren balioa galdu, zein ere den bigarren argitalpenaren data, diren-direnean jadanik bazirelako 1728ko

⁵² Larramendiren biografiako gertakari horietako batzuk lehenago aipatu baditugu ere, oro har, ikus bedi Altuna (1992: 17-18) eta bertan aipatu autobiografiako pasarteak.

edizioan. Halaber, egiaztatu dugu Ediciones Vascasekoa bigarrenetik egin dela eta, beraz, sarritan horren testua 1728koa bailitzan erabilia izan dela 1978tik aitzina.

Bigarren edizioak lerroz lerro jarraitzen dio lehenbizikoari gehienbat. Alabaina, aldaketak izan badira batetik bestera. Inprimategiko langileei egotz dakizkiekeenak (akatsak egin edo zuzentzea, grafia aldatzea, lerroak konpontzea, etab.; § 2.5.2) eta azalean inprimategiaren datuei dagozkienak (§ 2.1) gorabehera, aldaketa interesgarriak atzeman ditugu eskaintzan, sarreran eta etimologietan (§ 2.2, 2.3 eta 2.4, hurrenez hurren).

Eskaintza Joan Idiakez Felipe V.a Espainiako erregearen gortean, haren Corps-eko Guardian eta Fernando haren semearen zaintzan egindako zerbitzuengatik oso gora heldu zen azkoitiarrari egin zion Larramendik, ez baitzen edonor, Espainiako inperio osoan erroak bota zituen gipuzkoar babes-sare handiaren burua baizik. Bigarren edizioan esleitu zizkion karguak gehiago dira eta ezberdinak: adibidez, artean Espainiako Handikia izatera heldua zen Idiakez, erregeak Granada de Egako dukerria oparitu baitzion.

Sarreran hirurogeita hamar lerroko eransketa topatu dugu. Testu berriaren helburua, funtsean, hauxe da: irakurleak liburuaren tonu zakarra, Espainiako Akademiaren eta haren hiztegiaren aurka esaten dituenak, bai eta gainerako hizkuntzei buruzkoak ere ondo har ditzan, ez irain gisa, baizik eta bere hizkuntzaz maitemindurik eta haren aurka txantxak eta laidoak sarri entzun behar dituen euskaldunak ohi duen moduan. Testu barruan ere (H 18-23 > V 21-2) akademikoen aurkako hitz gogor batzuk ematu egin zituen bigarren edizioan.

Liburuan erabilitako tonuari buruzko eransketa bezain handia ez izan arren, deigarria da euskal jatorrikotzat jo zituen lehen edizioko hamalau deituri beste zazpi gehitu izana (H 26-23 > V 28-26/28). Interesgarria litzateke horretaz dakienak familia horiek nor ziren zehaztea, gorteko euskaldunak ote ziren, edo nongoak, Larramendik haiek eransteko izan zitzakeen zioak agerian jartzeko, baina hemen hobetsi dugun hipotesia hauxe da, alegia, Larramendik adibide gisa Espainian zehar sakabanatutako euskal etimologia (ustez) nabarmeneko deitura gehiago eman nahi izan zituela, besterik gabe.

*De la antigüedad*en zati handi bat (36-81. or.) gaztelaniak euskaratik omen dituen hitzen etimologiak jasotzen dituen hitz zerrendak hartzen du, A, B eta C letrak bakarrik bildurik. Edizio batetik bestera Larramendik A letran etimologia gehiago erantsi zituen, eta lehengo batzuk osatu edo aldatu, B letra bere horretan utzi zuen arren. C letrakoak, ordea, osoki berriak dira: izan ere, ustez ustekabeen, konparazioak agerian jarri du lehenbiziko edizioan A eta B letrako etimologiak bakarrik zeudela, eta hau ondo dator Akademiaren hiztegiaren argitaratzearekin, A eta B lehren liburukia 1726koa baita, eta C letrarena 1729koa. Beraz, bi edizioen kontua aintzat harturik, batetik, Oihenarten etimologia-zerrendak ere A, B eta C letrak bakarrik jasotzeak eredu gisa izan zezakeen garrantzia galdu edo, gutxienez, gutxitu egiten da: egiaztatu dugu Larramendik 1728an jada ezagutzen zuela eta Villargordorenean berrerabili zuela. Bestetik, Larramendiri Akademiako norbaitek C letraren liburukia eskura jarri ziolako hipotesia bertan behera gelditu da, hots, Akademian «sator» bat izan zuelakoa. Bi edizioen konparaketaren bidez, azken alderdi horretan bakarrik ikusi ditugu suntsiturik Larramendiri buruzko aurreko ikerketetan egindako hipotesiak.

Vinsonen bibliografiari esker (§ 3.1) zabalduegi ez bide dagoen beste datu bat bildu dugu, hots, *De la antigüedad*en lehen edizioak bi egoera dituela, eta bigarre-

nean «Aviso al lector» atala erantsi zuela Larramendik. Atal hori, berak esanda, lehen aleak saldu eta gero idatzi zuen, liburuaren tonua irakurleei zakarra iruditu eta horretaz desenkusatzeko. Irakurlearentzako atal hori berez osoki desagertu da bigarren ediziotik, baina hitzez hitz osatzen du edizio horretan atzeman dugun sarrerako hirurogeita hamar lerroko eransketa (§ 3.2). Haatik, irakurleen kexen aipua, nagusien autoritateari men egin beharra eta desenkusa tonua galdu ditu pasarteak, eta, aldaketa gutxirekin, liburua nola ulertu behar den azaltzeko balio dio bigarrenean Larramendiri. Honoratoren bigarren egoerako «Aviso al lector» eta Villargordoren edizioaren hitzaurreko eransketaren arteko erlazio horretaz ohartzeak, bestalde, edizio hori 1728koaz gerokoa dela bermatzeko balio izan digu, Vinsonek berak azaleratutako zailantza izpiak ezabaturik.

Bigarren edizioaren datatzearen gaian gehiago luzatu gara (§ 4). Idiakezek erdie-tsi zituen tituluaren daten azterketak *post quem* data 1728an ez, baizik eta 1729an jarri behar dela erakutsi digu, orduan izendatu baitzuen erregeak Granada de Egako duke (§ 4.2). Halaber, urte hartantxe kaleratu zen Akademiaren hiztegiaren C letra, urrats ezinbestekoa Larramendik C letrako etimologiak erants zitzaizkion (§ 4.1). Data hori ondo dator Villargordo gramatikaren argitaratzailea izatearekin ere, eta iradokitzen du inprenta berean ez ezik agian gramatikatik gertu argitaratu zutela *De la antigüedad* bigarrenez. Berebat, *De la antigüedad*eko etimologia batean *cadira* lapurterazko hitzaren bi adieren iturri zuzena ziurrenik Leizarragaren Testamentua balitz, proposatu dugunez, 1730az geroko Baionako egotaldiarekin lotu behar litzateke (§ 4.3). Hipotesiok behin betiko bermatu ditu Larramendiren 1729ko azaroko gutun batek, zeinean gramatika koadernatzen aipatzen baitu, baina *De la antigüedad*en bigarren edizioa egiteke dago, nahiz jadanik gogoan dabilkion (§ 4.1).

Bestalde, Idiakezen heriotza urteak *ante quem* oso egiantzeko bat eskaini digu: 1736 (§ 4.2). Alta, urte berean argitaratu zen *Discurso histórico* Larramendiren hurrengo argitaratua baliatu dugu Villargordoren edizioa 1730-1732 artean kokatzeko. Izan ere, *Discursoren* «Carta al lector» Sevillan datatua da, 1732an, Larramendi amaerreginaren mandatuz gortera joan zenekoan. Eta liburu horren eskaintza Fernando Asturiasko printzeari egina da, Idiakezek zaindu zuen Felipe V.a erregearen semeari. Data hori ondo datorke hiztegiako A letraren berezitasunarekin (§ 4.3). Izan ere, Sevillan hartu zuen —berak esanda—⁵³ Loiolara erretiratzeko asmoa eta, hipotesi gisa, Loiolako bakeak eman ziokeen hiztegiari jarraitutasunez heltzeko eta B letratik aurrerakoa beste era batera antolatzeko astia eta gogoia.

Hiztegiaren bi parte horien gaia edizio batetik bestera aldatu eta gehitutako etimologiekin lotu dugu (§ 4.3): oso litekeena da Villargordoren edizioa maneatu zuen garaian hiztegiako A letra edo haren zati bat bakarrik prest izatea, zeren eta horrek azalduko bailuke bai zergatik A letrako aldaketa asko *HH*ko etimologiekin bat datozen, bai B letra zergatik utzi zuen ukitu gabe. Halaber, C letrako etimologia osoki berriek badituzte kidetasunak *HH*koekin, baina ez data berean edo oso hurbilean idatzia direla uste izateko lain. Horrek guztiak, bere aldetik, Villargordoren edizioa ez «1740 inguruan», proposatu denez, baizik eta lehenago kokatzera garamatza, dudarik gabe 1730-1736 tartean, hots, *Imposible vencido* eta *Discurso histórico* liburuaren argi-

⁵³ «En Sevilla determiné el retirarme, y se lo escribí a N. P.» (ap. Telletxea Idigoras 1973: 18).

talpenen artean. Ausardia gehiagoz, 1730-1732 tartean, Baionara heldu eta Sevillan behin betiko Loiolara baztertzeko erabakia hartu bitarte hartan.

Datu baitezpadako baina txiki batek, Larramendik *De la antigüedad* bigarrenez argitaratu zela ezustean jakin izanak, aukera eman digu liburua lehenengoz argitaratu ondoko bizitza urratsez urrats aztertu eta berreraikitzeke, Larramendiren jokabidea hobeto ulertzeko —historialarien laguntzaz Idiakezen babes-sare erraldoian kokatzea barne— eta bigarren edizio datagabearen data proposamenak egiteko. Halaber, *Hiztegi Hirukoitza*ren bilakabidearen berri gehiago ere lortu dugu. Azken batean, berriz ere egiaztatu dugu bibliografia lana, hau da, obra baten lekukotasun esanguratsuen *recensioa* eta *collatio* (cf. Bleuca 1983, askoren artean), filologoaren oinarritzko zeregina ez eze, ezin bestekoa ere badela obra horretaz behar adinako sendotasunaz aritzeko.

6. Bibliografia

- Aguilar Piñal, Francisco. 1989. *Bibliografía de autores españoles del siglo XVIII* (V. liburukia, L-M). Madril: CSIC.
- Alarcó Ubach, Cristina. d.g. Cayetano Alberto de la Barrera. In Real Academia de la Historia, *Historia Hispánica*. <https://historia-hispanica.rah.es/biografias/6154-cayetano-alberto-de-la-barrera-y-leirado>.
- Altuna, Patxi. 1992. Aita Larramendiren bizitza. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, 3-26. Andoain: Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Gipuzkoago Foru Aldundia & Eusko Jaurlaritza.
- Auroux, Sylvain. 1994. *La révolution technologique de la grammatisation*. Lieja: Mardaga.
- Berruezo, José. 1966. Documentación procedente del Archivo General de Guipúzcoa. In *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa* 7. Fascículo dedicado a la conmemoración del segundo centenario del fallecimiento del P. Manuel de Larramendi, S. I., 13-24. Donostia: Gipuzkoako Aldundia.
- Bilbao, Jon. 1976-1980. *Eusko Bibliographia. Supplementum 1961-1975 (J-Unión)*. Donostia: Auñamendi.
- Bleuca, Alberto. 1983. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Camino, Iñaki. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Diccionario de Autoridades* = Espainiako Errege Akademia (1726-1739).
- EKC = Euskara Institutua. 2013. *Euskal Klasikoen Corputa*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc>.
- EODA = Euskaltzaindia. d. g. *Euskal Onomastikaren Datutegia*. <https://www.euskaltzaindia.eus/eoda>.
- Espainiako Errege Akademia. 1726-1739. *Diccionario de Autoridades*. 6 lib. Madril: RAE (Berrargit. faksim. 3 lib. Madril: Gredos, 1979).
- Gaskell, Philip. 1972 [1998]. *Nueva introducción a la bibliografía material*. Gijón: Trea (Consuelo Fernández Cuadras & Faustino Álvarez Álvarez izulpena).
- Guerrero Elecalde, Rafael. d.g. Juan de Idiáquez y Eguía. In Real Academia de la Historia, *Historia Hispánica*. <https://dbe.rah.es/biografias/30443/juan-de-idiaguez-y-eguia>.
- Guerrero Elecalde, Rafael. 2012. *Las élites vascas y navarras en el gobierno de la Monarquía borbónica: Redes sociales, carreras y hegemonía en el siglo XVIII (1700-1746)*. Bilbo: UPV/EHU.

- Guerrero Elecalde, Rafael. 2017. Los nuevos gobernantes de la Monarquía borbónica o el mundo de relaciones y servicios de Bruno Mauricio de Zavala (1682-1736). *Anuario del Instituto de Historia Argentina* 17:2. e049. <https://doi.org/10.24215/2314257Xe049>.
- Ibar = Mokoroa (1936).
- Iglesias Feijoo, Luis. 2017-2018. Tiempos recios: la aprobación de libros en la España del Siglo de Oro. *Boletín de la Biblioteca de Menéndez Pelayo* 93-94. 31-92. <https://doi.org/10.55422/bbmp.560>.
- Imízcoz Beunza, José María & Daniel Bermejo Mangas. 2016. Grupos familiares y redes sociales en la carrera militar. Los oficiales de origen vasco y navarro en el ejército y la marina, 1700-1808. *Cuadernos de Historia Moderna* 41(2). 497-538. <https://doi.org/10.5209/CHMO.54199>.
- Lakarra, Joseba A. 1985. Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan. *ASJU* 19(1). 9-50.
- Lakarra, Joseba A. 1993. *XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez*. Gasteiz: UPV/EHUko tesia. http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joseba_Lakarra_TESIA.pdf.
- Lakarra, Joseba A. 2023. Asuntzioko Sermoi egile-, toki- eta urte gabea: Larramendiren testu berri ezezaguna [Loiola 14.08.1740]. *Euskera* 68(1). 111-220. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i68.255>.
- Larramendi, Manuel. 1728. *De la antigüedad y universalidad del Bascuense en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas. Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*. Salamanca: Eugenio García de Honorato (Bigarren argitalpen datagabea [1732?], Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaraz. Hirugarren argitalpena [?], Bilbo: Irurac-bat, 1860. Laugarren argitalpena, Donostia: Ediciones Vascas, 1978).
- Larramendi, Manuel. 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo.
- Larramendi, Manuel. 1736. *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*. Madril: Juan de Zúñiga.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuense y latín*. Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero.
- Mitxelena, Koldo. 1973. *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa (Hirugarren edizio gehitu eta zuzendua).
- Mitxelena, Koldo. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia*, 15 lib. Bilbo: Euskaltzaindia, etab. <https://www.euskaltzaindia.eus/oeh> (2025/02/05).
- Mokoroa, Justo Mari «Ibar». 1936. *Genio y lengua*. Tolosa: Librería de Mocoroa hermanos. OEI = Mitxelena (1987-2005).
- Oihenart, Arnaut. 1638 [2014]. *Notitia utriusque Vasconiae [...]. Connaissance des deux Vasconies [...]*. Baigorri: ZTK argitaletxea (Jean Baptiste Orpustanen itzulpen eta oharrekin).
- Oihenart, Arnaut. 1656 [1992]. *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum aquitanicae*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra (2. edizioaren berrargit. faksimilea, Ricardo Cierbideren aurkezpenarekin eta Javier Gorosterratzuren gaztelaniazko itzulpenarekin).
- Palau, Antonio. 1926 [1990]. *Manual del librero hispano-americano* (IV. liburukia, H-LL). (1914-1945eko lehenengo argitalpenaren erreprodukzioa, Madril: Julio Ollero, 1990).
- Palau, Antonio. 1954. *Manual del librero hispano-americano. Segunda edición corregida y aumentada por el autor* (VII. liburukia, I-L). Bartzelona: Librería Anticuaria A. Palau.

- Ramos Remedios, Emiliana. 1994. Consideraciones sobre el léxico pretendidamente vasco de la *Notitia*. In *Oihenarten laugarren mendeurrena*, 103-114. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Rodríguez Llopis, Miguel. 1982. *Conflictos fronterizos y dependencia señorial: la encomienda santiaguista de Yeste y Taibilla (ss. XIII y XV)*. Albacete: Instituto de Estudios Albacetenses & CSIC.
- Sorarrain, Genaro de. 1848. *Catálogo de obras éuskaras*. Bartzelona: L. Tasso (Berrargit. faksim. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1984).
- Telletxea Idigoras, Jose Ignacio. 1966. Nota autógrafa del P. Larramendi a la copia que hizo del Nuevo Testamento de Lizarraga. Advertencia. In *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa*, 7. lib., 175-176. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Telletxea Idigoras, Jose Ignacio. 1973. *Autobiografía y otros escritos (Obras del padre Larramendi 2)*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Urgell, Blanca. 1996. Larramendi o el despertar de la literatura vasca peninsular. In Gotzon Aulestia (arg.), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, 263-288. Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- Urgell, Blanca. 2000a. *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*. Gasteiz: UPV/EHUko tesia. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Blanca_Urgell_TESIA.pdf.
- Urgell, Blanca. 2000b. Larramendiren etimologiaren bilduma. Gasteiz: UPV/EHUko argitaragabea.
- Urgell, Blanca. 2000c. 16. [eranskina.] Han-hemengo etimologigaiak. In Urgell 2000a, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, 3. liburukia [Eranskinak], 309-331. Gasteiz: UPV/EHUko tesia.
- Urgell, Blanca. 2002a. *Hiztegi Hirukoitza-ren kanpoko eta barruko historiaz*. In Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga & Joseba A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk (ASJUren gehigarriak 44)*, 629-649. Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2002b. Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina: Saio bat hiztegi-gintzaren testukritikaz (ASJUren gehigarriak 47). Donostia: «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Urgell, Blanca. 2005. Larramendiren euskal liburuak 1745 arte. *Lapurdum* 10. 247-286. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.62>.
- Urgell, Blanca. 2009. ¿Un topo en la Academia? Sobre una fuente vasca (casi) desconocida del *Diccionario de Autoridades*. In Victoriano Gaviño Rodríguez (arg.), *Las ideas y realidades lingüísticas en los siglos XVIII y XIX (Actas del VI Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística; Cádiz, 6-9 de noviembre de 2007)*, 643-660. Cádiz: Universidad de Cádiz.
- Urgell, Blanca. 2016 [2021]. On the reliability of Larramendi's evidence. *ASJU* 50(1-2). 121-147.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa (1745-1891). In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaur-larritza.
- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: J. Maisonneuve (Berrargit. faksim. Julio Urquijoren oharrekin: [ASJUren gehigarriak 9]. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984).

1. eranskina. Villargordoren edizioaren sarrerako pasarte erantsia

Hurren erantsitako pasarte osoa kopiatu dut bere testuinguruan, eta [] taketez markatu dut Villargordoren edizioko eransketa:

[...] y hablaré en fin con la naturalidad, ò intrepidez genial de mi País.

[Con esto descubro bastantemente mi designio, que ha sido acomodar el estilo, no solo al caracter de la Apología (que de su natural no lleva el estilo muy suave, y suele gastar mas picante, que dulce), sino mucho mas al ayre de un Bascongado amartelado de su Lengua; el qual picado de las continuas chanzas, ò burlas, que oye contra el Bascuenze, se vale de las mismas armas à su modo, y procura defenderse como Dios le ayuda, dexandose llevar de la intrepidez genial de su País, sin detenerse en pulir frases, ni atarse à comedimientos, y cortesánias. Y como este ayre intrepido, atufado, y brusco (si puede passar esta voz Francesa) de un Bascongado puesto en defensa de su Lengua, no solo no ofende, ni enfada en las conversaciones ordinarias, sino que divierte, y cae en gracia; y en lugar de causar acedía, causa gusto, combidando à dar con dichos festivos mas y mas materia al despique: assi me persuado, que sucederá en lo escrito, y que todos lo leerán de buen humor, y en tono mas de festividad, que de aspereza. Con todo me es preciso declarar, que no es mi animo, causar la mas leve ofension à sugeto alguno, ni que decayga un punto de la opinion, que se mereciere su caracter, su saber, y su erudicion: partidas, que, donde se hallaren, estaran siempre muy à cubierto de todo insulto, que pueda aprehenderse de mis impugnaciones, y crisis. Y especificando en particular lo que podrá notarse mas, digo, que reconozco a la Académia Española por un gremio muy respetable, assi por otros capitulos, que le hazen acreedor de toda atencion, como por componerse de sugetos de una literatura conocida, y exquisita erudicion. Cuyo Diccionario aprecio, como obra de grandissimo estudio, llena de especies selectas, de madurez en la censura, de reflexion curiosa en la calificacion de las voces, frases, axiomas, y en fin utilissima; no solo para el credito de la Nacion, sino tambien para las bellas Letras en nuestra Lengua Castellana. Y si en este Tratadito estoy de mal humor con el Diccionario, es solamente por el sentimiento justo, que nos da à los Bascongados, en hazer tan poco caudal del Bascuenze, cuya noticia, aun en sentir de eruditos desapasionados, parece indispensable para el acierto de su empressa. Nada mas significan mis reconvenciones, aun quando no se lean con el ayre, y tono, que he dicho. Declaro tambien, que quanto digo de otras Lenguas, es en una total abstraccion del merito, nobleza, y qualidades de las Naciones, que las hablan: las quales (quien lo puede dudar?) no tienen pendiente su honor, y reputacion de los atributos Grammaticales de sus Idiomas. Además, que nada digo yo, que en estos puntos de Critica no ayan dicho muchas vezes Autores graves, aun hablando de sus proprias nativas Lenguas, sin incurrir por esso en la nota de maldicientes contra sus Patrias, ò las agenas.]

Arte de la Lengua Bascongada. Al oírlo, unos se reirán...

2. eranskina. Honoratoren edizioko «Advertencia al lector» erantsia

Aviendo entendido, que mi estilo en este tratado ha parecido aspero, y desabrido á personas inteligentes, que lo leyeron en los primeros exemplares, debo prevenir en los que restan lo siguiente. Mi designio, como lo descubro bastantemente á la primera entrada, ha sido acomodar el estilo, no solo al caracter de la Apologia (que de su natural no lleva estilo muy suave, y suele gastar mas picante, que dulce), sino mucho mas al ayre de un Bascongado amartelado de su Lengua; el qual picado de las continuas chanzas, ò burlas, que oye contra el Bascuenze, se vale de las mismas armas á su modo, y procura defenderse como Dios le ayuda, dexandose llevar de la intrepidez genial de su País, sin detenerse en pulir frasses, ni atarse á comedimientos, y cortesañías. Y como este ayre intrepido, atufado, y brusco (si puede passar esta voz Francesa) de un Bascongado puesto en defensa de su Lengua, no solo no ofende, ni enfada en las conversaciones ordinarias, sino que divierte, y cae en gracia; y en lugar de causar acedia, causa gusto, combidando á dar con dichos festivos mas y mas materia al despique: assi me persuadí, que sucedería en lo escrito, y que todos lo leerian de buen humor, y en tono mas de festividad, que de aspereza. Pero en fin persuadido de lo contrario por personas, á cuya authoridad debo y quiero deferir, me es preciso declarar, que no ha sido mi animo, causar la mas leve ofension a sugeto alguno, ni que decauya un punto de la opinion, que se mereciere su caracter, su saber, y su erudicion: partidas, que, donde se hallaren, estarán siempre muy á cubierto de todo insulto, que pueda aprehenderse de mis impugnaciones, y crisis. Y especificando en particular lo que parece averse notado mas, digo, que reconozco á la Academia Española por un gremio muy respetable, assi por otros capitulos, que le hazen acreedor de toda atencion, como por componerse de sugetos de una literatura conocida, y exquisita erudicion. Cuyo Dicionario aprecio como obra de grandissimo estudio, llena de especies selectas, de madurez en la censura, de reflexion curiosa en la calificación de voces, frasses, axiomas, y en fin utilissima, no solo para el credito de la Nacion, sino tambien para las bellas Letras en nuestra Lengua Castellana. Y si en este Tratadito estoy de mal humor con el Dicionario, es solamente por el sentimiento justo, que nos da á los Bascongados, en hazer tan poco caudal del Bascuenze, cuya noticia, aun en sentir de eruditos apasionados, parece indispensable para el acierto en su empresa. Nada mas significan mis reconvenciones, aun quando no se lean con el ayre, y tono, que he dicho. Declaro tambien, que quanto digo de otras Lenguas, es en una total abstraccion del merito, nobleza, y qualidades de las Naciones, que las hablan: las quales (quien lo puede dudar?) no tienen pendiente su honor, y reputacion de los atributos Grammaticales de sus Idiomas. Ademàs que nada digo yo, que en estos puntos de Critica no ayan dicho muchas veces Autores graves, aun hablando de sus proprias nativas Lenguas; sin incurrir por esso en la nota de maldicientes contra sus Patrias, ò las ajenas.

3. eranskina. *De la antigüedad en aleak*

BFL = Bizkaiko Foru Liburutegia; BL = British Library; BNE = Espainiako Liburutegi Nazionalea; KMK = Koldo Mitxelena Kulturunea; SelS = Sancho el Sabio Fundazioa. Edizio bakoitzeko lehen alea(k), bilduma eta kodea letra beltzez eman ditugunak, erkaketan erabili ditugunak dira. Gainerakoan, taulan aleei eman zaien hurrenkerak ez dauka esanahi berezirik.

Argitaraldia	Egoera	Bilduma	Kodea	Kolazioa	Bildumako oharrak	Gure oharrak
Honorato (1728)	«Avis» gabekoa	BNE	U/4663	Descripción física: [8], 170 [i.e. 168] p. ; 8.º Nota de referencia bibliográfica: Aguilar Piñal. Bib. S.XVIII V.5, n. 358	Sello en tinta azul: «Librería de D. Luis Usoz. 1873» Exlibris manuscrito en portada: «De la Lib.^a del Coll.º de Sn. Ign.º de Valladolid» Donativo de María Sandalia de Acebal y Arratia, 1873 Historial de propiedad y custodia: Luis de Usoz y Rfo (1805 -1865)	
Honorato (1728)	«Avis»duna	BL	886.b.2.			Google Books-en digitalizatutik. Zigilua: British Museum. Gaurko kokapena: British Library.
Honorato (1728)	«Avis» gabekoa	BFL	LAND-R-69	Deskribapen fisikoa: [8], 170 [i.e. 168] p., [1] h. de grab. ; 8.º Sign.: ¶⁴, A-K⁸, L⁴	[OROKORRA] Hay una emisión de esta edición con variantes en la mencion del autor. Según Palau, 132040 las iniciales del autor corresponden a Manuel de Larramendi. Frontispicio calcográfico, re-presentando el escudo de Gipuzkoa: «La Cruz f[eci]ta». Porrada con orla tipográfica. Error de paginación, de p. 96 pasa a 99. [ALEARI BURUZKO OHARRA] Ejemplar falto del frontispicio calcográfico. -- Encuadernación pergamino.	96-99 jauzia hemen bai (baina testuan ez dago jauzirik, orrialdekatzean bakarrik baizik).

Argitaraldia	Egoera	Bilduma	Kodea	Kolazioa	Bildumako oharrak	Gure oharrak
Honorato (1728)	«Avis» gabekoa	BFL	VR-176		Encuadernación piel. -- Firma autógrafa en verso de portada: «Casas».	96-99 jauzia bai.
Honorato (1728)	«Avis» gabekoa	BFL	LAND-R-42			Azalaren beheko aldean, eskuz: «Es de Dn. Pedro de Iturri».
Honorato (1728)	«Avis»duna	Euskaltzaindia	AK-23/7 AT		Aipamen bibliografikoa: Vinson 50 a. Testuaren aurrean «Advertencia al lector» Sign.: [euli-hanka] 4, [euli-hanka] 2, A-K8, L4. Ertzapaindura tipografikodun ataria. Orrialdeztapen-errakuntza, 96. orrialderik 99.era doa.	96-99 jauzia bai. Ikusteke: Pruden Gartzia zuzendariak bermatua.
Honorato (1728)	«Avis»duna	Euskaltzaindia	OD-852, CD-0806		Lacombe Biblioteka. Larru-azaleztapena burdinaz urreztatua. Babestorrian ondokoen ex libris autógrafaok: «Ex libris Anthony Serpeille 1840»; «De Dn. Joseph de Orobio Bazterra año de 1729».	Idem.
Honorato (1728)	«Avis» gabekoa	Sels	ZRV 404			
Honorato (1728)	Ez dago jakiterik	KMK	J.U. 4756 a	170 p.; 15 cm		
Honorato (1728)	Ez dago jakiterik	KMK	Belarza 2481	170 p.; 15 cm		

Argitaraldia	Egerra	Bilduma	Kodea	Kolazioa	Bildumako oharrak	Gure oharrak
Honorato (1728)	Ez dago jakiterik	BNE	2/22289			
Honorato (1728)	Ez dago jakiterik	BNE	3/35005		Sello: «BR» (Biblioteca Real).	
Honorato (1728)	Ez dago jakiterik	BNE	3/30624		Exlibris de Gayangos.	
Honorato (1728)	«Avis»-duna (egiaztatzeke)	Universitat Ramon Llull	Montserrat: Sala general; D*XLV*12.º-42	[12], 170 [i.e. 168] p.; 8.º, 15 cm		Bi ale: bata Montserrateko li- burutegian eta bestea ESADE Sant Cugat-en (ik. hurrengoa). Deskribapena bera da bien- tzat, baina ez nago ziur hala den. Nolanahi ere, erreparatu [8]-ren ordez [12] dioela, ko- lazioan «Avis»-dun bat baliatu duten seinale.
Honorato (1728)	«Avis»-duna (egiaztatzeke)	Universitat Ramon Llull	ESADE: Fons Borja ; *T 14-1-1			Ik. aurrekoa.
Villargordo (d.g.)	—	BNE	3/35459		Librería del licenciado D. Ca- yetano Alberto de la Barrera [y Leirado] (1815-1872)].	
Villargordo (d. g.)	—	BFL	VR-11		Ejemplar falto de frontispicio. -- Anotaciones manuscritas en portada: «P. Manuel de Larra- mendi S.I.». -- Encuadernación piel	

Argitaraldia	Egoera	Bilduma	Kodea	Kolazioa	Bildumako oharrak	Gure oharrak
Villargordo (d. g.)	—	BFL	LAND-R-70	Deskribapen fisikoa: [8], 184 p., [1] h. de grab.; 8.º Sign. Sign.: ¶⁴, A-L⁸, M⁴	[OROKORRA] Según Palau, 132040 las ini- ciales del autor corresponden a Manuel de Larramendi Según Aguilar Piñal, V, 359 fecha probable de impresión en torno a 1740 Portada con orla tipográfica Frontispicio calcográfico, re- presentando el escudo de Gi- puzkoa: «La Cruz f[eci]t» Error de paginación, p. 120 fi- gura como 220 y p. 147 como 247 [ALEARI BURUZKO OHARRA] Encuadernación pergamino	
Villargordo (d. g.)	—	SelS	ZRV 221	[8], 184 p. Sign.: [calderón]4, A-L8, M4	En algunos catálogos se cita como fecha de edición 1729 SORARRAIN 199 URQUIJO 4682 VINSON 50 b PALAU 132043	Eskuz: «Enrique de Jáuregui, Bilbao»
Villargordo (d.g.)	—	KMK	Belartza 850	184 p. ; 16 cm.		
Villargordo (d.g.)	—	KMK	J.U. 4756 b	184 p. ; 16 cm.		

Argitaraldia	Egoera	Bilduma	Kodea	Kolazioa	Bildumako oharak	Gure oharak
Villargordo (d.g.)	—	BNE	3/35459		Fecha aproximada obrenida de Palau [ca. 1740] Exlibris: «Librería del licenciado D. Cayetano Alberto de la Barrera» Donativo del Ministerio de Fomento 1873	
Villargordo (d.g.)	—	Euskaltzaindia	— AK-23/8 Pergamino-azaleztapena. Babestorrian ondokoaren ex libris itasiaz: Norbert Tauer (NT) — AK-23/9 Pergamino-azaleztapena. Ale osotugabea, frontoia ments du. Euskaltzaindiaren zigilua. — OD-852, CD-0803 Lacombe Biblioteka. Pergamino-azaleztapena. Ale osotugabea frontoia ments du. Azalostean eskuzko oharak.		Alpamen bibliografikoa: Vinson 50 b Data Landeta Fondoaren katalogotik jasoa Sign.: [euli-hanka]4, A-L8, M4 Ertzapaindura tipografikodun ataria Frontoia kalkografikoa da Gipuzkoako armataria ageri dela	